

hh  
hik hasi

**Neli Zaitegiri elkarrizketa**  
Haurrek nola tratatuak izan nahi duten  
Umeen ahotsak konfinamenduan  
Hezkuntza goiztiarreko laborategia  
Zer egin irailan sei hilabetetan euskararik  
entzun eta hitz egin ez dute ikasleekin?  
Olatz Zugasti



COVID-19AREN LEZIOAK

Anjel Lertxundi  
Irudiak: Antton Olariaga

# HALTZAREN MUINOA



Gure letren maisu handiaren kontakizun ederra

**elkar**

[www.elkarargitaletxea.eus](http://www.elkarargitaletxea.eus)

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## COVID-19AREN IRAKASPENAK ESKOLA HOBETZEKO

Krisi honetan Hik Hasik urgentziaz sortu duen Laborategiari amaiera emateko, uztailaren leian Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkeko lorategian hausnarketa kolektibo bat egin zen. Orain arteko bizipenak eta irakaspenak aintzat hartu eta irailan zer eta nola egin daitekeen hausnartu eta partekatu zuten bertaraturakoek.

ELKARRIZKETA / 18

## NELI ZAITEGI

Urte luzeetako ibilbidea egin du Neli Zaitegi abantotarrak hezkuntzan eta azken lau urteetan Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakari izan da. Esparru askotan —eskolan, zuzendaritzan, ikuskaritzan, Hezkuntza Sailean, irakasleen formazioan— lan egin izanak hezkuntzaren gaineko arlo askotan hausnarketa egina eta iritzia osatua edukitzera eraman du. Irailera begira eta COVID-19aren aurrean ere proposamen ausartak ditu.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Mikel Agirrezabala, Ane Aranburu, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostizu.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Joxe Mari Auzmendi, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-06-22).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

5 EDITORIALA

Hausnarketa kolektibo preziatua

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

COVID-19aren irakaspenak eskola hobetzeko

18 ELKARRIZKETA

NELI ZAITEGI

“Ezin dugu jada pasa den mundurako hezi”

26 ESPERIENTZIAK

Haurrek eta gazteek nola tratatuak izan nahi duten adierazi dute

30 EKARPENAK 1

Umeen ahotsak konfinamendu garaian

32 EKARPENAK 2

Hezkuntza goiztiarreko laborategia ireki dute Bilboko Hezkuntza Fakultatean

34 EKARPENAK 3

Xare euskarazko kultura digitalaren gunea

36 GALDEIDAZU

IÑAKI EIZMENDI eta ARRATE GISASOLA

Zer egin daiteke irailan sei hilabetez euskararik entzun eta hitz egin ez duten ikasleekin?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Landarlan ingurumen-elkartea

42 ATZEKO ATETIK

Olatz Zugasti

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Gipuzkoako Foru Aldundia



zerbitzua eta lana euskaraz

Herria berreskuratzen



# Hausnarketa kolektibo preziatua

## editoriala

AIRE LIBREAN ETA AURREZ AURRE.  
BERTARATUTAKO EK GUSTURA HARTU  
ZUTEN HIK HASI LABORATEGIAREN  
ITXIERAKO HAUSNARKETA SAIOA.  
IRAILERA BEGIRA DENAK BAT ZETOZEN:  
ZAINKETA ETA KOMUNIKAZIOA.



**K**oronabirusa, maskarak, tartea, kutsatuak, agerraldiak... behin eta berriz entzuten ditugun kontuak dira egunkarrietan eta albistegietan, baina hezkuntza arloan beste elementu batzuk azpimarratzen dira, sakonagoak. Hori islatu zen Hik Hasik antolatutako hausnarketa kolektiboan. Itxialdi garaian egindako Hik Hasi Laborategiari bukaera emateko, uztailearen lehen hezkuntzako bi aditu, bost ikastetxetako zuzendariak eta irakasleak bildu zituen Hik Hasik Andoaino Martin Ugalde Kultur Parkeko lorategian. Laborategiari aurrez aurreko amaiera xume bezain emankorra eman nahi izan zitzaion aire librean hausnarketa kolektibo bat eginez.

Aire librean, Heike Freirek Laborategian azpimarratutakoei jarraituz, osasun neurririk eta txertorik hoberena natura dela gogoratuz eta hori praktikan jarritz. Aurrez aurre, horren beharra eta nahia agerikoa zela ikusirik. Eta partekatze, elkarren kezak, zalantzak, zailtasunak, ideiak eta proposamenak ezagutzeko eta baliatzeko. Neli Zaitegi maistra eta pedagogoa elkarriketa nagusian dioen moduan, “gelditu eta hausnartu egin behar dugu, hori egin ezean ezin delako aldaketarik burutu”.

Ikasturteko azken esperientziak zintzotasunez partekatu zituzten bertaratukoak, eta zenbaki honetako erreportaje nagusian bildu dira. Orain artekoaren balorazioak eta iraileira begirako erronkak izan zituzten hizpide.

Haatik, ez zuten ikastetxean jarri beharreko xaboi kopuruaz, musukoaz edo pasilloetan jarri beharreko geziez hitz egin. Hori ere hor egongo da, noski, baina beste gai batzuez hitz egiteko premia agertu zen: zaintza eta komunikazioa. Gure ahuleziak agerian geratu diren krisi honetan, guztiak bat etorri ziren horretan: ikasleak zaindu behar ditugu, familiak zaindu behar ditugu, irakasleak zaindu behar ditugu; denok daukagu zaintzeko eta zainduak izateko premia. Hori da krisi honetan norberak bere larruan bizitu duena. Eta bizitutakoan, garbi ikusten da.

Komunikazioa. Ohiko komunikazio bideak etenda, hanka motz geratu gara denok: hezkuntza-komunitatea ahuldu egin da harremaneratarako bideak zaildu egin direlako, eta horren ondorioak ere denek nabaritu dituzte. Argi geratu da hezkuntza kolektiboa dela, denok dugula denon beharra eta guztion arteko komunikazioa mantentzea lehentasunezko premia dela.

Beraz, irailera begira horra hor bi erronka indartsu: elkar zaintzea elkarrekin komunikatuz eta harremanetan egonez. Oinarri horiek ongi finkatzeko bideak eta estrategiak anitz izan daitezke, eta hor elkarrekin topo egingo dugu, lankidetzan jarraituko dugu. Hik Hasik elkargunerako espazioak eskaintzen jarraituko du, lagungarri dela adierazi zaiolako eta horretan sinesten duelako. Hori delako Hik Hasiren egitekoa.

“Klase kontzientzia ez da lantzen hezkuntzan”

Pello Igeregi



## EUSKARA ZERBITZUAN MURRIZKETAK EGIN DITU EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK DATORREN IKASTURTERAKO



Hautsak harrotu dituzte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskara zerbitzuan egin dituen murrizketek eta zerbitzu horretako buru Iñigo Barrusok bere postua utzi du, adieraziz “ez dutela beraiek kudeatuko beste batzuek egindako kaltea”. Hezkuntza Sailak euskara zerbitzuan hartutako erabakiekin ez datorrela bat adierazi du. Langile kopurua ere jaitsi egingo da; orain arte 140 pertsona aritu dira lanean euskara zerbitzuko programetan eta momentu honetan 47 kalean daude. Neurri horiekin ezin zaie erantzun euskara zerbitzuak dituen helburuei eta zereginei.

Langile kopurua murriztearekin batera, Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi ditu irakasleentzako lanorduetan IRALEk ematen zituen ikastaroak eta euskal girotze barnetegiak. IRALEren kasuan urtean 700 irakasle inguruk jasotzen dute formazioa eta neurri murriztaile honekin zerora jaitsiko da kopurua.

Euskal girotze barnetegien kasuan, ikaslerik ez dute jaso martxotik, eskolara joateari utzi ziotenetik. Ikasle askok euskararen galera izango dutela aurreikusiz, euskara zerbitzutik egoera hori arintzeko proposamenak egin dituzte —ikasleak egun-pasa joatea barnetegietara, urtean zehar jarraipena egitea, teknologia berriak erabiliz eskolen eta barnetegien arteko lotura indartzea...— baina ezezko biribila jaso dute Hezkuntza Sailaren aldetik.

Euskara zerbitzuko langile guztiak sinatutako testu bat kaleratu dute. Azaldu dutenez, zerbitzu hori sortu zenetik hainbat programa eta egitasmo sustatu eta bultzatu dira irakasleen euskara maila hobetzeko, eta haurren euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko eta sendotzeko. Agiriaren sinatzaileen iritziz, irailera begira ikusten diren erronken aurrean, egitasmo horiek indartzeko behar gehiago dago kentzeko baino. Horregatik eskatu diote Hezkuntza Sailari atzera egin dezala hartutako azken erabakiekin, eta argi adierazi dute eskolak euskaldundu behar badu ezinbestekoa dela euskara zerbitzua indartsua izatea.

## MURRIZKETEN AURREAN TINKO JARRI DIRA SINDIKATUAK EAE-N

EHIGE, HEIZE eta sindikatuak datorren ikasturteari begira murrizketak egitea leporatu diete Hezkuntza Sailari. Baliabideak behar dituzten arren, murrizketak sumatzen ari dira. HEIZEk eta EHIGEk “kezka” ikusten dute ez dagoela ikastetxetarako baliabide gehiagorik.

ELAk, LABek, Steilasek, CC00k eta UGTk adierazi dutenez, baliabide ekonomikoak eta pertsonalak handitu beharrean, murrizketak egiten ari da Hezkuntza Saila. Osasun krisia baliatuta egiten ari den murrizketen aurrean, langileek hezkuntza publiko indartsu bat aldarrikatzen dute. Horretarako, alde batetik baliabideak eskatzen dituzte, eta beste aldetik langileen ordezkariekin interlokuzio eta negoziaketa erreala bideratzea. Hori egin ezean, mobilizazio dinamikarekin hasiko dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako behin-behineko lanpostu zerrendak ikastetxetara iristen hasi direla diote, eta murrizketak ezartzen ari direla jangelako eta sukaldeko langileetan, eskola txikietan, espezialistetan, terapeuta okupazionalan, Haurreskolak partzuergoan, Hamaika Esku programan, IRALEn, euskal girotze barnetegietan eta abar. Murrizketen ordez hezkuntza publikorako inbertsioa handitu eta aurrekontuak moldatu ditzala eskatzen diote, aspalditik beharrezkoak diren eta orain premiazkoak diren behar eta hutsuneak betetzeko.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN GEHIENGOAK ETA ALDERDI POLITIKOEN SKOLAE DEFENDATU DUTE JUSTIZIAREN ERABAKIAREN AURREAN



Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Skolae programak tramitazio akatsa duela ebatzi ondoren, alderdi politikoen, sindikatuen eta hezkuntza eragileek berau defendatu dute. Akats hori aipatzeaz gain, ez du bestelako argudiorik ematen edukiari dagokionez, eta horrexegatik uste dute eragileek programarekin aurrera jarraitzeko arrazoiak daudela. Nafarroako Gobernuo eledun Ramon Alzorriren esanetan, “erabatekoa eta irmoa den sostengua du gure aldetik”. Zentzu horretan, gobernuak programari behar duen segurtasun juridikoa eta administratiboa emango dizkiola gaineratu du. “Programa positiboa da, ona da eta gobernu honek inongo zalazarik gabe sostengatzen du, eta baita PSNk ere”. Uxue Barkos Geroa Baiko parlamentariak eta aurreko legegintzaldian Gobernuo presidentea izan zenak gogorarazi du “parlamentuaren gehiengoak onartutako proposamena” izan zela eta Gobernuari dagokiola orain sententzia errekurritzea edota akatsa konpontzea Skolae bere garapena izaten jarrai dezan.

Sindikatuak Gobernuari sententzia errekurri dezan eskatu diote eta hezkuntza eragileek berme legalak lor ditzan nahi dute. Hezkuntza eragileen ustez “berdintasunaren alde lan ez egitea eta hezkidetzan oinarritutako curriculumak ez bultzatzea berdintasunaren aurkakoa da eta horrek neska-mutilen, nerabeen eta, oro har, gizarte osoaren eskubideak urratzen ditu”. Haien esanetan, gaurko neska-mutilak etorkizuneko helduak izango dira eta hezkidetzan, berdintasunean eta askatasunean hezten baldin baditugu gizarte justuagoa izango dugu. Horregatik uste dute Skolaeekin jarraitu behar dela.

## IPARRALDEAN ERE IRAKASLEAK MOBILIZATU DIRA

FO, CGT eta FSU sindikatuak Baionako suprefeturaren egoitzaren aurrean elkartu ziren hezkuntzan duten egoera salatzen. Frantziako Gobernuri egotzi zioten kontraesaneko neurriekin nahasmendua eragitea. Sindikatu haien hitzetan, osasun krisia baliatu du Gobernuak bere egitasmoak bultzatzeko. Hezkuntza publikoko postuak ezabatzeari uzteko eta beharrezkoak diren hutsuneak betetzeko ere eskatu dute, eta gogorarazi baxoa eta lizeoetako erreforma bertan behera uzteko aldarria aurrera doala.

## NAFARROAN MURRIZKETARIK EZ DAGO MOMENTUZ

Nafarroan momentuz ez dute murrizketarik espero datorren ikasturterako eta lantaldeak itxita daude. Lekualdatzeetarako esleipenak aurreko ikasturteetako irizpideekin atera dira. Zenbait kasutan jangeletarako begirale gehiago kontratatzeke aukera izango dute, gainera.

Edonola ere, egoerak kezka sortzen duela ikusita, Nafarroan hezkuntza publikoko eta pribatuko sindikatuen —LAB, Steilas, AFAPNA, ANPE, CCOO, ELA, UGT eta SEPNA— eskolarako itzulera osasuna bermatuz egiteko eskatu diote Hezkuntza kontseilariari. Egoerak bultzata, jada pedagogikoki eta metodologikoki hainbat aldaketa egin beharko dituztela aurreikusten dute eta baita langile gehiago beharko dituztela ere.



## HIK HASIREN 'HEZKUNTZA-ERREALITATE BERRIETARA JAUZI' MONOGRAFIKOA KALEAN DA



laz 20 urte bete ziren Hik Hasiren Udako Topaketak egiten hasi zirenetik eta ospakizun modura jardunaldi berezi bat egin zen *Hezkuntza errealitate berrietara jauzi* izenburupean. Orain, jardunaldi hartan esandakoak monografiko batean bildu dira.

Hitzaldi bat eta lau mahai-inguru egin ziren duela urtebete, eta hezkuntza alorretik kanpo dabilzan adituek eta arituek hezkuntzari eta, oro har, etorkizuneko gizarteari buruz gogoeta egiteko parada izan zuten. Horretarako bi galdera egin zitzaizkien:

- 10-20 urte barru nolako gizartea irudikatzen duzu? Zein izango dira premia nagusiak? Zeri erantzun beharko zaio?
- Horretarako, zer-nolako hezkuntza behar da? Nola hezi behar ditugu haur eta gazteak?


Argitalpen honetan, mahai-inguru haietan egindako gogoetak bildu dira, aipaturiko galdera horiei emandako erantzunak. Argitalpena landu eta prestatu bitartean, ordea, COVID-19aren krisia etorri da gainera, mundu osoa irauli duen pandemia, eta baita hezkuntza arloa ere. Gauzak horrela, mahai-inguruko partaideei galdera berri bat luzatu zaie:

- Urtebete pasa da 2019ko uztailean etorkizuneko gizarteaz eta hezkuntzaz hausnartzen aritu ginenetik. Orain, mundu mailako pandemia bat bizitzen ari gara COVID-19a dela-eta, konfinatuta egon gara eta ziurgabetasun egoera batera iritsi gara. Orain urtebete egindako gogoetari zer gehituko zenioke bizi dugun pandemia dela-eta?

Partaide hauen hitzak, hausnarketak eta gogoetak bildu dira Hik Hasiren 34. monografikoan: Juan Jose Ibarretxe, Joseba Azkarraga Etxagibel, Idurre Eskisabel, Maitane Arnoso Martinez, Txusa Balbas, Arcadi Oliveres, Marga Iñiguez, Jon Sarasua, Ion Errea, Aritz Otxandiano, Heike Freire, Tamara Claveria eta David Fernandez. Monografikoa eskuratzeko [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)-era jo daiteke.

## GURASO.EUS BERRITU DUTE HAMAR URTE BETE DITUENEAN

Hamar urteko ibilbidea bete berri du *guraso.eus* atariak eta urteurrenarekin batera berrikuntzak egin dituzte. Besteak beste, plataforma digital berrietan berrikuntzak egin dituzte eta gaur egun oso erabiliak diren gailu eramangarrietarako ere egokitu dute: mugikorrak, tabletak eta abar. Gurasoen premiak asetzeko gunea izaten jarraituko du hamar urteko ibilbidearen ondoren ere.



## IRUÑEKO EUSKARAZKO HAUR ESKOLEN ALDEKO DIRU BILKETA JARRI DUTE MARTXAN

Iruñeko euskarazko haur eskolen aldeko kanpaina bat abiatu du HE Gurasoak plataformak *SOS Euskara Iruñean* lelopean. Euskarazko haur eskolak finantzatzeko dirua lortu nahi dute kanpainan. *Itsulapikoa.eus* web-gunean egin daiteke ekarpena.



# HIZPIDE IZANGO DA

## ZUBEROAKO MÜSIKAREN EGÜNA HELDU DEN URTEAN OSPATUKO DA IKASTOLEN ESKUTIK

Koronabirusaren pandemia dela-eta aurten ez da Müsikaren Egüna ospatu Zuberoan. Urtero ospatzen da Urdiñaben musikari lotutako festa eta topaketa, baina 2021era atzeratu dute eta beste leku batean izango da. Hala jakinarazi dute antolakuntza lekukoa hartu duten Xiberoko ikastolek. "Besten egutegian erreferentzia bilakatu zen hitzordu hori gure gain hartu nahi izan dugu", orain arte hogeita hamar urtez antolatzen jardun den Bil Xoko elkarteari lekukoa hartuz. Beraz, Sohütako Eperra eta Alozeko Basabürüa ikastolak eta Larzabaleko Erdozaintzi Etxart Kolegioa lankidetzan arituko dira ondoko urteko Pintakoste asteburuan eskaintza berri-tua egiteko. Iragarri dutenez, haur, gazte eta helduei zuzenduriko musikaren, euskararen eta ikastolen aldeko besta izanen da eta oraindik ezagutzera eman ez duten leku berri batean iraganen da.



EUSKAL HERRIKO  
Pedagogia  
Sistemikoaren  
Eskola

### ONLINE berrikuntza!



### PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN KURTSOA ESKOLA EREMUAN

2020-2021  
14. PROMOZIOA  
6. PROMOZIOA EUSKARAZ

- Ikaslearen errealitatea kudeatzen ikasi, bai familia artekoa baita emozionala.
- Gatazkak ikasgelan hobeto kudeatzen ikasi ikuspegi sistemikoarekin.
- Zure funtzioak ezagutu eta zure oreka bilatu lantokian.
- Panpinak eta ipuin sistemikoa bezalako metodologia tresnak erabiltzen ikasi.

Aukeratu **AURREZ AURREKO** ikastaroa Donostian edo **ONLINE**. Ikasleek beren lantokiko esperientzietan oinarritutako pedagogia sistemikoko praktikak egingo dituzte.

Izen-emateak edo informazio gehiagorako:  
[www.pedagogiasistemikoa.eus/formakuntza](http://www.pedagogiasistemikoa.eus/formakuntza)  
[info@pedagogiasistemikoa.eus](mailto:info@pedagogiasistemikoa.eus)



Ez da erraza izan. Martxoaren 13an eskolak itxi eta irakasle zein ikasleak etxetik lanean hasi zirenetik, bidea ez da erraza izan. Alarmaren larritasunean, inprobisatuz hasieran; zurrunbiloaren erdian, erabaki potoloak hartuz gero... ikastetxeak bidea egiten joan dira ekainera bitartean, familien laguntzarekin. COVID-19aren krisiak gauza asko jarri ditu mahai gainean, positiboak batzuk, ez hainbeste, beste batzuk. Hilabete zail hauetako irakaspenak mahai gainean jarri nahi izan ditu Hik Hasik urgentziaz sortu zuen Laborategiari amaiera emanaz uztailaren 1ean Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkeko lorategian egindako hausnarketa kolektiboan, irailean presente izan beharko genukeen markoa zedarritzeko batetik, eta praktika zehatzak hobetzeko bestetik. Aurrez aurre, aire librean.

# GAIA: COVID-19AREN IRAKASPENAK ESKOLA HOBETZEKO

**C**COVID-19aren pandemiak hezkuntzara ere krisia ekarri du. Krisietatik gauza onak atera daitezkeela sinetsita, eta une gaitzetan bizi izandako irakaspenak baliatu eta daukagun eskola hobetzeko helburuarekin, martxoaren 13az geroztik hezkuntza-komunitatean bizi izan dituzten esperientziak partekatzea gonbidatu ditu Hik Hasi egitasmoak bost ikastetxetako zuzendariak: Hernaniko Langile ikastolako Rosa Aierza, Debagoienako Arizmendi ikastolako zuzendari orokor Iñaki Etxezarreta, Hernaniko Aratz ikastetxeko Maiteder Requejo, Oiongo Ramiro de Maeztu herri eskolako Alicia Fernandez eta Tolosako Herrikide ikastetxeko DBH eta Batxilergoko Gartxot Agirre. Nork bere esperientziatik, zintzotasun handiz eta eskuza-baltasunez, Euskal Herri luze zabaleko ikastetxeei iraileko agertoki ziurgabeen — non ziurrenik eskola presentziala eta telematikoa uztartu beharko dela aurreikusten duten guztiek —, lagungarri izan dakizkiekeen gakoak azaldu zituzten bost ikastetxeetako zuzendariak. Aurretik, Hik Hasi Laborategian parte hartu zuten bi adituk, Ane Ablanedok eta Nora Salbotxek, COVID-19ak eskola hobetzeko utzi dizkigun lezioetatik abiatu marko bat marraztu zuten. Ikasle eta

familiakiko komunikazioa; pertsona erdigunean jartzeko beharra; bizitzari leku egitea; elkar zaintzearen garrantzia; euskarari eusteko premia, familia-eskola binomioa sendotzeko nahia; markoaren garrantzia edota eduki curricularren aurrean konpetentziak sustatzeko premia nabarmendu zituzten parte-hartzaileek, eta bertaratutako irakasleek, besteak beste.

Krisiak erroetara begira jarri du Ane Ablanedo, pedagogia berritzaileetan aditua eta Baionako unibertsitateko eta institutu publikoko irakaslea. Hiru hilabeteotan ateratako lezio nabarmenena, Ane Ablanedorentzat eskola bizitzatik zeinen urrun dagoen hain nabarmen ikustea izan da. Beraz, irailari begira, krisia eskola hobetzeko baliatuko badugu, gaurko eskolaren erroak eurak zalantzan jartzen hasi beharko genuke, zimenduak sendotzeko: “Nik gaur dakardan diskurtsoa da krisi honek eman digula aukera irakurri nahi duenarentzat — irakurri nahi ez duenak ez du hori ikusiko — eskola — eta are gehiago institutua — pertsonak bizitzeko behar ditugun ikasketetatik zeinen urrun dagoen. Bizitzan, bizirik gaude-lako eta munduarekin harremanetan gaudelako, ikasi egiten

# GAIA: COVID-19AREN IRAKASPENAK

Eskola hobetzeko



Ane Ablanedo hizketan, aurrean Nora Salbotx duela, uztailaren leian Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkeko lorategian.

dugu; eskola bizitza horren luzapen bat balitz, prestatuago egongo litzateke birus honek ekarri duen krisiari erantzuteko. Kontua da urrun dagoela; oso agerian gelditu da”.

Bizitza erantsi behar zaio eskolari, eta eduki akademiko eta curricularra kendu. Hain zuzen ere, krisiak ebatsi diona (harremanak, sozializazioa, jolasa, dibertimendua...) erantsi, eta alderantziz, krisian sustatu dena (etxerako lanak, edukiak...) kendu. “Konfinamendu-garaian eskola tramite bat izan da —azaldu zuen penaturik Ablanedok—. Irakasleok etengabe aritu gara lanak bidaltzen, materiala banatzen... eta lan horiek esanguratsua izan al dira ikasleentzako? Irakasle lanetik harago, ikasleek bizipen batzuk izan dituzte konfinamenduan, eta bizipen horiei loturiko ikasketa batzuk izan dituzte, bizirik zeudelako. Bizipen eta ikasketa horietatik urrun egon da eskola”.

Ane Ablanedoren aburuz, krisia ez dugu baliatu behar eskola COVID-19aren testuingurura egokitzeko, baizik eta eskola bera hobetzeko eta eraldatzeko baliatu behar dugu abagunea. “Beste eskola bat behar dugu; ez koronabirusaren aurrean bakarrik, beste eskola bat behar dugu gizakiok, eta bereziki haurrek, bizitzan hasten ari diren neurrian”. Bizitzari lekua egiten badiu eskolak orduan izango da haurraren eta nerabearen ikasketa esanguratsua. “Bizitzan nola ikasten dugu gizakiok? Eta aldiz, zertan ari da eskola? Zer ari gara egiten? Zer egin behar dugu eskola bizitokia izan dadin? Zer-nolako bizitza nahi dugu gizakiok? Zer-nolako bizitza eskaintzen diegu haurrei? Eskolan batez ere sozializatzen ikasten dute haurrek, baina zer sozializazio-mota barneratzen dute? Zer-nolako balioak?”

Bizitzan ikasten duen bezala, bere jakin-minetik abiatu-rik ikasiko badu haurrak eskolan, irakaslearen rola ere aldatu beharko litzateke: “Haurrak etxeko testuinguruan bizipenetatik, etxeko gauzeekin eta lagunekin ikasten duen bezala ikasi beharko luke eskolan, eta irakasleok bidelagun izan beharko genuke, haurrari bere prozesuan lagunduko liokeena eskainiz, proposamenak, materialak eskura jarritz, eta harremanak zainduz”. Ablanedoren aburuz, erdigunean zer balore ezarri nahi ditugun planteatzeko unea da: “Nik proposatzen dudana da pertsona erdigunean jarriko duen bizitza bat, eta pertsona horri bere potentzialtasun guztiarekin eta integralki garatzen lagunduko dion eskola bat. Hori jarri behar dugu erdigunean, eta prozesu horretan ikasketa egongo da, sozializazioarena, edukiena eta gaitasunena, eta garapena egongo da”.

## Hiru irakaspenera eta galdera bat

Komunikazioa, zaintza eta curriculum. Nora Salbotx Amaiurko herri eskolako maistra eta zuzendariak irailean aurrez aurreko eskolak eta telematikoa uztartu behar izango ditugun agertokian kontuan izan beharreko hiru gako nabarmendu zituen, osasun-krisi honek hiru hilabeteotan mahai gainean jarri dizkigun hiru lezio garrantzitsu. “Lehendik ere hausnarketarako gako diren irakaspenera dira, baina kasu askotan krisiak zenbait gauza ezinbertzeko gisa planteatu dizkigu”.

Komunikazioari loturiko irakaspenera nabarmendu zuen lehenik: “Komunikazioa, telekomunikazioa, hezkuntza, tele-hezkuntza, komunikazio interaktiboa, softwarea, hardwarea... ikaskuntza eta irakaskuntza-prozesuak mediatizatu diren neurrian, honi guztiari buruz hausnarketa kritiko bat egin beharko genukeela uste dut —adierazi zuen—. Komunikazio interaktiboa, horizontala eta demokratikoa bermatzea jarrera politiko bat da, eta ez da baliabide teknologiko kopuruarekin zerikusia daukan ariketa bat”. Roberto Aparicik hezkuntza digitalean aditua den irakaslearen hitzak ekarri zituen Salbotxek: “Aparicik esaten du hezitzaileok nahiko garbi daukagula hizkuntzaren eta komunikazioaren bitartez egiten dugula gure lana. Baina orain zer gertatu zaigu? Gure praxi fisikoan, ikastetxeetan gaudenean, nahiko garbi izan dugu hori guztia eta horregatik gure jarduerak eta egiteko moduak gero eta interaktiboagoak izaten saiatu gara, gelak geroz eta dinamikoagoak, ikasleentzako elkarrekintzak gero eta gehiago saiatu gara errazten eta aukerak ematen... Baina, aldiz, ikasketak mediatizatu direnean eta pantaila bat tarteko jarri zaigunean, ez dugu hausnarketa hau plano telematikora eramanez”. Horrek kezkatu egiten du Salbotx; “Koronabirusaren krisiagatik eskolak itxi eta handik bi egu-

## GAIA: COVID-19AREN IRAKASPENAK ESKOLA HOBETZEKO

nerako sekulako inboluzio metodologikoa ikusi nuen; non zeuden elkarrekintza horiek guztiak? Non zegoen taldea? Nola ari ginen komunikatzen?” Irakaskuntza telegrafoaren komunikazioaren eskemara itzultzeko arriskua ikusi du Amaiurko irakasleak: “Emaile bat alde batean, hartzaile bat bertze aldean. Gure borondate on guztiarekin jokatu dugu irakasleok, eta hau azpimarratu nahi dut, egin dugu ahal izan duguna eta ahalik eta hoberen, baina media neutroa balitz bezala jokatu dugu, eta [Marshall] McLuhanek esaten zuen bezala, media mezua ere bada”. Hausnarketara gonbidatzen gaitu Salbotxek: “Zer mezu da Googlerena? Zer mezu da Microsoftena? Hori dena ez da neutroa, horrek badu ideologia bat”. Datorren ikasturtean ziur aski bizi izan dugun agertokiaren antzekoren bat egokituko zaigula aurreikusirik, non berriz eskolak modu telematikoan eman behar izango ditugun, edo gutxienik aurrez aurrekoa eta online testuingurukoa konbinatu beharko ditugun, baliabide teknologikoak modu kritiko batean begiratzeko premia ikusten du Salbotxek: “Modu kritiko batean hausnartu beharko genuke zer tresna eta zer baliabide eta nola eta zertarako erabiltzen ditugun; goazen politizatzerara, ez baitira neutroak”. Silvia Federiciren ideiak ekarrita eta eskolak komuna bat izan behar badu, filosofo feministak planteatzen duen gisan eskolak oinarrian darabilzkiezen tresnak ere horrelakoak izan beharko lirake: komunitarioak, publikoak, ez jabeak eta negozioa egitea helburu ez dutenak. “Gure ikasleek, pasa diren hiru hilabete hauen ondorioz, Googlek eta abarrek, bezero bezala ikusten dituzte; eta nahiko beldurgarria da gaia”.

Bigarren hausnarketa, bizitza erdigunean jartzen duen ikusmoldeak dator, Federici bera edota Amaia Perez Orozco eta ekonomia feministatik. Salbotxek eskola-bizitza sustengatzen duten funtsezko lanak eta zaintzaren bistaratzea premiazkotzat jotzen du eskola itzuleraren lehen eginkizun gisara. “Bizitza erdigunean jartzeaz ari garenean, krisi honek sekulako parada ona eskaini digu ikusteko bizitza erdigunean jartzeak zer erran nahi duen ikastetxeetan edo hezkuntzara ekarrita. Hezkuntza izebergaren muturrean legoken hiruki didaktikoa zerk sustengatzen duen kontuan hartuko duen eta ongi azalduko duten jarduerak ezartzea justizia sozialean eta feminismoan aitzinerat egitea da”. Eskolaren egunerokoa problematizatzea proposatzen du “kontzientzia hartzea, ibiltzen ditugun pasilloen garbiketa eta mantenua, jangelan bazkaltzen dugun horren prestaketa, jatorria eta ekoizpena, eskolako atariraino ailega gaitzen gertatu behar izan diren zaintza-lan eta ardura horiek denak ikusarazi beharko ditugu, haiek gabe ez baita, bertzeak bertze, matematikako eskola posible egiterik, ez eta, ondorioz, biderketak nola ebazten diren ikasterik ere”. Eguneroko

bizitzan ikaskuntza handi bat ikusten du Salbotxek: zaintzaren pedagogiaren inguruko. “Zaintza balioan jartzea, politizatzea eta curriculumera ekartzea garrantzitsua litzateke. Zaintzan eta elkarbizitzan bilatu eta aurkituko ditugu eduki eta gaitasun asko badirela aski baliagarriak zaizkigunak gure ikasleek ezagutza eraiki dezaten, aurrera egin dezaten, pertsona bezala gara daitezen”.

Krisiak mahai gainean jarri duen hirugarren irakaspenak, Salbotxek aburuz, edukiekin eta curriculumarekin du zeri-kusia. “Oso hasieratik ikusi da krisian edukietan zentratutako curriculumak daukagula, eta ezbaian jarri beharko genuke. Eskola-edukiak, oinarri entziklopediko nabarmenekoak dira eta konplexutasuna bilatuz birpentsatu beharko ditugu”. Curriculum guztiak sistemaren nahiak eta grinak islatzen dituztenez, “gutxien-gutxienez susmopean” jarri beharko genuke darabilgun curriculumak: “Ezagutzak —akaso lehen herri ondasuna zena— gaurko hezkuntza sisteman daukan jitea birpentsatzeko arrazoi berriak eman dizkigu krisi honek. Sistemaren posizio ideologikoa, hezkuntza arautuan ikasleek ikas dezaten bilatzen den horretan hautematea badagoela uste dugu, eta ondorioz, gure kasuan, eduki horiek gutxienik susmopean paratzeko arrazoiak ez genituzke faltan”.

Irailari begira, galdera bat proposatu zien bertaratutakoei Salbotxek: “Ikasturte amaiera honetan eskatzen ari zaigu balora dezagun gure ikasleek zer galdu duten hilabete hauetan etxean egoteagatik, eta hezitzaileok buelta eman beharko genioke galdera horri, eta abia gaitzen zer irabazi duten galdetzetik, hor sekulako oinarri ona baitigu irailean zeezer berria eraikitzen hasteko”.



# Bost esperientzia irailan hobeto hasteko

Rosa Aierza, Hernaniko Langile ikastolako zuzendaria:  
“Haur guztiak nola datozen behatuz hasiko dugu iraila”

**K**omunikazioa, horra hitz gakoa. Langile ikastetxeak ikasle eta familiekiko komunikazioa kudeaketaren erdigunean jarri du hiru hilabete kritiko hauetan. Haur eta Lehen Hezkuntzako 700 ikasle izanik, “erronka handia izan da familia guztiengana iritsi eta nola zeuden jakitea”, azaldu zuen Aierzak, aitortuz hiru hilabete zail bizi izan dituztela. Hain zuzen ere, komunikazio hori ezarri zuten lehen helburutzat, eta bigarren helburua irakasleen arteko gutxieneko koordinazioa izan zen, “antzeko zerbaitetan aritzea irakasle guztiok”.

Edukien atala martxoan bukatzat eman zuen ikastetxeak, ikasturtearen bi heren eginda gainerakoa irailetik aurrera egokitzea erabaki zuten. Maiatz erdian ikasturte bukaerako ebaluazioak martxan jarri zituzten, konfinamendu garaian familiek euren seme-alabak nola ikusi zituzten ezagutu nahi zuen ikastetxeak, eta ekainarekin hausnartzeko garaia iritsi zen: irailari begira erabakiak hartu behar ziren, baina nola? “Gu ez gara inoiz bizi izan honelako egoera batean, eta nola bueltatu behar gara? Oso landua dugu eskolan heriotza eta doluaren gaia, baina hau, zer da?”. Orduan Nora Salbotxekin harremanetan jarri ziren, kanpoko laguntza behar baitzuen klaustroak iparra argitzeko. Salbotxekin begiradarekin eta familietatik jasotako informazioarekin, erabaki batzuk hartu zituzten klaustroan irailari begira:

- Behaketarekin hasiko dute iraila. “Ikusi behar dugu nola bueltatzen diren haur guztiak bai alderdi emozionalari nola curricularrari begira”.
- Maila guztietan itzulera landu egingo dute.
- Maila guztietan talde-kohesioko ariketak egingo dituzte.

Irailan aurrez aurreko eskoletara itzultzeko aukera eta telematikoa, bi agertokiak aurreikusiz nola jokatuko luketen erabaki batzuk hartu dituzte. Ohiko ikasturtea ez bada, indartu beharreko hutsune hauek identifikatu dituzte:

- Ildo nagusiak markatu, maila guztietan berdintsu jokatzeke. “Hartutako erabakiak denok bete behar ditugu. Beste edozein proposamen bada, aurrez Kudeaketa

eta Curriculum batzordeetan aurkeztu eta baloratuko dira”.

- Irailako lehen egunetan maila guztietan gela-bilerak egingo dira familiekiko, klaustroak prestatutako jarraibideak partekatzeke, elkarrekin prozedurak adosteko eta familien ekarpenak jasotzeko.
- Ikasleei lanak helarazteko garaian, eredu mistoa erabiltzea hobetsi dute: atal batzuk telematikoa izango badira ere, alor manipulatioari eusteko premia ikusi dute (paperean, jolasak, etxeko zereginekin lotura dutenak...).
- Ikastolako webgunea ikasleekin lanak partekatzeke eta familiekiko harremanetarako egokitu beharra ikusi dute.
- Asteari hasiera eta bukaera tutore eta ikasleen arteko ekintza batekin emango diote: bideodeiak, bideotxoak... Meet formatoaren bidez.
- Lanen antolaketa epe laburrekoa izatea hobetsi dute: asterokoa.
- Lan proposamenen zehaztasunari garrantzia eman diote. “Darabilgun metodologiari egokituriko proposamen zehatzak izan behar dira, eta ziurtatu behar dugu azalpenak aurrez iristen direla”.
- Lan proposamenak ikasle bakoitzaren beharretara (Hezkuntza Premia bereziko ikasleak, iritsi berria, egoera bereziak ...) egokitzeko premia ikusi dute.
- Irakasleen jardunari eskola-ordutegira egokitu dute eta irakaslearekin harremanetan jartzeko ordua zehaztuko dute.
- Irakasle eta familia arteko harremanak ziurtatu behar direla ikusi dute, aurrez erabakitako bidearen (emaila, telefonoa) eta maiztasunaren arabera.
- LH5/6ko ikasleekin erabilera digitalerako lanketa antolatuko da.

Hiru hilabete hauetako ziurgabetasunarekin eta alde batetik eta bestetik jasotako protoko eta ebazpenekin gaitortuta sentitu dira momentu askotan irakasleak, eta irailera begira, egitekoak beste patxada batekin hartzea beharrezko ikusten

## GAIA: COVID-19AREN IRAKASPENAK ESKOLA HOBETZEKO

du Aierzak. Aurrez aurrekoaren balioan sinesten du zuzendariak, baina agertoki guztietarako prestatu behar dira. Datorren ikasturtea antolatzekeo garaian, ikastetxe bezala duten ildo orokorra hartuko dute abiapuntu bezala, eta egoera berriak mahaia gainean jarriko dizkien egoerak honako batzorde hauen arteko elkarlanarekin kudeatzea adostu dute: Kudeaketa Batzordeak ikastetxera iristen diren ebazpen/legedia orokorrak kudeatuko ditu, eta bere ardura izango da antolaketa orokorra egin beste batzordeetara pasatzea, edota kontingentzia plana egin eta gainbegiratzea ere. Curriculum

Batzordearen egitekoa programazioak curriculumaren eta haren ebaluazioaren funtsezko alderdietara egokitzekeo lana izango da, era berean, irailean ikasleek duten egoeraren diagnostiko bat egin beharko du batzorde honek. Elkarbitzita batzordea: ikasleen emozioen arloari erreparatu behar zaiola ikusirik, tutore akonpainamenduari, autonomia pertsonalaren konpetentziari eta ikasten ikasteari arreta jartzea izango da batzorde honen egitekoa. Informatika Batzordeak larrialdiko egoera bat suertatuz gero, erantzun bat emateko formula zehatzak aurreikusi beharko lituzke.

## J. Iñaki Etxezarreta, Debagoienako Arizmendi ikastolako zuzendari orokorra: “Sen kolektiboa errekuiperatu behar dugu”

**D**ebagoienako hiru udalerritan, hamabi eraikinetan, guztira 3.200 ikasle dituen ikastetxea da Arizmendi, “hamabi txalupa, bakoitza bere patroiarekin eta bakoitza bere autogestio planteamendurekin, ikastola baten barruan”, adierazi zuen zuzendari orokorrak. Ikastola den aldetik, zentzu komunitarioa lehenesten du Arizmendik eta baita euskalduntasuna ere. Ikuspegi orokor horretatik Etxezarretak adierazi zuen COVID-19ak zauritu egin dituela, “ez da nolana hikoia izan egoera. Onartu beharra daukagu zenbait ahulezi bistan utzi dizkigula. Indargune batzuk agerian gelditu diren bezala, ahulezi batzuk ere bai”. Ahulezia koiunturak berak ekarri die: “Gure komunitatean konfinamendua ez da bakarrik ikasleena eta familiena izan, baita irakasle eta profesional guztiena ere. Eta horrek dispersioa ekarri du; eta dispersioak beti ekartzen du ahulezia”.

Ahulezi hori emendatzea, beraz, lehen egitekoa. “Irakasbide moduan, irailari begira sen kolektiboa errekuiperatzeko estrategia planteatu dugu, lehenengo profesionalen artean

— irakasle eta ez irakasle, guztira 300 langilera gara— eta baita familiarekin ere”. Zuzendariak adierazi zuenez, sen kolektiboa askoz indartsuagoa izan da Lanbide Heziketan, Batxilergoan eta Bigarren Hezkuntzan, Haur eta Lehen Hezkuntzako lehen mailetan baino. “Alegia, telematika posible ez zen kasuetan ahul gelditu gara”.

Halaber, komunikazioa indartzeko estrategia planteatu dute irakasleen artean ez ezik, familia eta ikasle guztiekin ere, adinak eta beharrak kontuan izanda. Zentzu komunitarioa sendotzeko asmoz, dagoeneko hartu dituzte neurriak Arizmendin Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrek jaso dituztenean ekainean: “Gurasoak deitu ditugu bi helbururekin: batetik beharra zuten horri erantzuteko, baina bereziki zentzu komunitarioa errekuiperatzeko. Alegia, erabakien parte direla, erabakiak beraiek hartzen dituztela gure profesionalekin batera. Beraz, kontratu sozial bat egin behar dela ikusi dugu, eta kontratu sozial horren bitartez eraiki behar dela ondoren egin behar duguna”. Horrek irailera begira



# GAIA: COVID-19AREN IRAKASPENAK

Eskola hobetzeko

gako inportante bat ezarri die mahai gainean: “Profesionalok bakarrik ezin dugu eskaintza bat egin, familien beharra daukagu”. Eta familiek komunikazioa eskatu diete.” Ikaskuntza akademikoaren gainetik — ikaskuntza akademikoa alboratu gabe — guraso guztiak eta ikasle gehienek planteatu duten beharrezana izan da komunikatiboa”. Familietatik jaso dituzten erantzunen % 90ak harreman maizagoa eta beroagoa eskatu diete: “Elkarri ezin diogu heldu, baina egon gaitezen elkarrekin, eta aldi berean, erantzun horietan agertzen da, jar ditzagun ikasleak elkarrekiko harremanetan. Guk DBHn eta Batxilergoan hori ahalbidetu dugu, eta argi dago gurasoek txalotu egin dutela harreman hori, batez ere diziplinarteko proiektuak egiten dituztelako. Baina LHn

egin ez dugunez, eta erraztasunik ez dutenez izan irakasleek horra iristeko, hori erreklamatu egin da. Beraz, hor badaude klabe batzuk etorkizuneko ikaskuntza eta heziketa planteatzeko garaian pista bat ematen dutenak”.

Ikastetxe askotan bezala, Arizmendin ere ahuldu zaien beste puntu inportante bat euskalduntasuna izan da. “Etorkin mordoskatxo bat daukagu, berandu etorritakoak asko; gurasoek euskaraz ez dakiten hurrekiko harreman euskalduna egitea oso zaila egin zaigu, batzuetan ezinezkoa. Euskalduntasunari dagokionez, euskaraz ikasi eta trebatzeari dagokionez, badaukagu hutsune inportante bat, eta hori hurrengo ikasturteari begira lotu beharra daukagu”.

## Maiteder Requejo, Hernaniko Aratz ikastetxeko zuzendaria: “Autonomia handiagoa hartu behar dute nerabeek”

Leerro bakarreko ikastetxea da Hernaniko Aratz kristau eskola, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezikuntza dituzte. “Gure egitekoa desberdina izan da etaparen arabera —5. mailatik 4. DBHra telematikoki ibili gara, eta HHTik LH4ra txostenekin funtzionatu dugu, gurasoekin adostuta—, baina kezka eta helburua berdina izan da: nola iritsi ikasle eta familia guztien esparru emozionalera eta nola eskaini guztiei baliabide teknologikoak curriculumera iristeko”.

Krisiak inoiz baino ageriagoa utzi die zein den Aratzeko irakasleen funtzioa: “Ikas-komunitate bat gara eta laguntzeko gaude”. Horretarako, Langilekoek eta Arizmendikoek nabarmendu bezala, familiekin harremana eta komunikazioa gakoak izan dira hiru hilabete hauetan eta bidelaguntza eskaintzeko tresna tutoretzak izan dira, lehenasuna eman eta indartu egin dituzte Aratzen.

Ikastetxearen oinarriko metodologia neuroikaskuntza du kristau eskolak, eta berau ere indargune izan da haurrak egoera emozionalera gerturatzeko. Haatik, neuroikaskun-

tzak esperimentazioari berebiziko garrantzia ematen dio, “neuroikaskuntzak esaten digu bizipenetan dagoela ikasketa esanguratsua, eta egunerokotasunean proiektuen bidez egiten dugu lan, baina itxialdian proiektu asko erori zaizkigu eta hor zailtasunak izan ditugu”.

Trailera begira indartu beharreko beste gako bat nerabeen ardura eta autonomiari dagokiona da. “Gaiaz asko hausnartu dugu DBHkoekin. Klaseak, oro har, pasiboagoak izan dira, eta ez ditugu ikusi seguru, irakaslearen jarraipena behar zuten; segurtasuna helarazi behar diegu hurrengo ikasturtean, beraiek ikaskuntza-prozesuaren erdigune direla sentitu behar dute, autonomia handiagoa hartu behar dute eta nola ikasi jakin behar dute”.

Euskararena izan da berariaz landu duten beste puntuetako bat, etorkin asko hartzen dituen ikastetxea izanik, irakasleek eta familiek kezka handia izan dute konfinamenduan euskararekiko harremana ez galtzeko: “Bereziki gurasoekin landu dugu puntu hori bideodeien eta whatsapparen bidez, telematikoki behintzat aurrean izaten saiatu gara”.

## Alicia Fernandez, Oiongo Ramiro de Maeztu eskolako zuzendaria: “Irakasleak zainduak sentitu behar dira gero beraiek haurrak zaindu ditzaten”

Eskola txikia da Ramiro de Maeztu ikastetxea ere, eta tamaina —bereziki klaustroarena— lagungarri izan da krisia kudeatzeko: “Arabar Errioxan eta Oionen oso ohituak gaude ziurgabetasunera. Koronabirusaren krisia oso gogorra eta bat-batekoa izan da, baina

irakasle on inplikazioa eta esfortzua oso handia izan da eta denok ikusi dugu ikasleek gure behar handia zeukatela eta dena eman behar genuela”. Komunikazioa, Oionen ere, hitz gakoa: “Lehenengo gauza egoerak aztertzea izan zen, baina komunikazioa ez zen erraza, familia batzuek ez dute erabil-



## GAIA: COVID-19AREN IRAKASPENAK ESKOLA HOBETZEKO

tzen emailik, beraz telefono eta whatsapp bidez ikusi ahal izan genuen familiak nola zeuden, zein kezka eta beldur zituzten, eta nola lagundu aztertzen hasi ginen”. Komunikazioarekin batera, koordinazioa lehenetsi zuen klaustroak: “Irakasle batzuei bakarrik sentitzen zirela entzun genien, eta konturatu ginen elkartzuz gero, indar handia dugula denok. Egiten duguna elkarrekin egitea erabaki genuen”. Hurrengo urratsa familiak inplikatzeko izan zen: “Ikusten genuen guk bakarrik ezin genuela: familiak behar genituen eta aukera eman genien parte hartzeko”. Ondoren ikusi dute familiekin harremana indarturik atera dela: “Gustatu zaigu familiak erreperatu izana; oso lagunduta sentitu dira”.

Zailtasunak zailtasun, begi onez ikusten dute krisialdiko esperientzia, eta irailerako gako batzuk mahai gainean jartzeko balio izan die: Langileen bezala, behaketarekin hasiko dira. “Lehenengo haurrak nola datozen ikusi behar dugu; nola lagundu aztertu behar dugu.” Horrekin batera, talde kohesioa landuko dute, ikasleekiko eta irakasleen artean: “Hezkuntza kooperatiboa egiten dugu, eta guretzat taldeko sentitzea zutabe garrantzitsu bat da”. Euskararena ere erronka potoloa izango dute, euren errealitatea lehen ere ez bazen erraza, konfinamenduak zaildu egin die. Zaintzan oinarrituko da Ramiro de Maezturen estrategia: “Irakasleak zainduak sentitu behar dira gero beraiek haurrak zaindu ditzaten”.

## Gartxot Agirre, Tolosako Herrikide ikastetxeko DBH eta Batxilergoko zuzendaria: “Lezio handiena pertsona erdigunean jartzearen garrantzia da”

**T**olosako Herrikide ikastetxeko Bigarren Hezkuntzako zuzendari titularra da Agirre azken 11 urteotan. Etxetik, baina elkarrekin. Krisiak zuzendaritza taldearen indarra sentitzeko bezala, ikastetxearen indarguneak eta ahulguneak mahai-gainean jartzeko balio izan die Herrikideko irakasleei ere. Adimen emozionala ardatz duen ikastetxea da, eta adimen anitzetan bideraturik taldeari garrantzia handia ematen dio komunitateak. Haatik, eta lehenagotik ere, teknologia berriekin trebatuak zeuden arren, martxoaren 13an etxean gelditu zirenean, ikasleen eta irakasleen artean zeukaten talde-lana edo ikaskuntza kooperatiboa aurrera eramatea zail egin zitzaion. “Diziplinarteko proiektuekin jarraitzea erabaki genuen. Ikastetxean klase konpartituak genituen; DBH 1-2n hiru gela ditugu, eta elkarrekin proiektu kooperatiboetan genituen, eta horrekin jarraitu behar genuela ikusten genuen; baina ez da erraza izan”. Taldea bai, eta norbanakoa ere bai: taldearekin batera, ikasle bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egin behar zutela ikusi zuten: “Ikusten genuen ikasleen eta familien jarraipen pertsonalizatua ezinbestekoa zela. Tutoretza-saioak biderkatu egin genituen, DBHn 2-3 saio egiten genituen astean tutore bezala taldearen kohesio hori markatzeko eta jarraitzeko; Batxilergoan ez genituen eta sortu egin genituen”.

Une gaitzetatik irakaspen baliotsuak atera dituzte Tolosan, eta irailean, izan daitezkeen agertoki zailak kontuan izanik, indartu beharko dituzten gakoak partekatu zituen gogoetan:

- Pertsona erdigunean: “COVID-19aren krisiak mahai gainean jarri digun lezio handiena pertsona erdigunean jartzearen garrantzia izan da. Lehen ere horrela pentsatzen geunen, baina orain indartu egin dugu pentsamendua: pertsona erdigunean dago; ikaslea, irakaslea,

familia eta ingurune guztia. Nabarmen gelditu da pertsonaren garrantzia eta pantaila batekin horra iristeko zailtasunak ere agerian gelditu dira”.

- Hezkuntza pertsonalizatua: “Egun hauetan pantailaren aurrean jartzen ginenean irakasleok kamarari zulo txiki bat balitz bezala begiratzen genion, baina atzean pertsona bat zegoen. Banakako komunikazioa oso inportantea da, taldea era bai —sozializatzeko—, baina irakasle eta ikasleen arteko tratua pertsonal hori ezinbestekoa dela ikusi dugu. Familiekin ere bai”.
- Komunikazioaren garrantzia: irakasle-ikasleen arteko komunikazio bidirezionala bermatzeko, bideodeiak gehiago lantzeko premia sumatu dute, “bideodeiak ez baitira eskolak”.
- Edukiek garrantzia galdu dute eta konpetentziek hartu dute pisua. “Hainbat urte daramatzagu konpetentziak lantzen eta modu jarraian ebaluatzen, eta orain konpetentzien garrantzia nabarmendu egin da”.
- Hezkuntza kooperatiboa lanak taldean egiteko erabiltzeaz gain, sozializazioa bultzatzeko giltzarri izan litekeela ikusi dute.
- Irakasleen arteko koordinazioa indartzeko premia dute.
- Teknologia digitalak garrantzitsuak dira, baina bitarteko bat dira.
- Familia eta ikastetxearen arteko binomioa indartu atera dela ikusi du Agirrek. “Orain ikusi da familiak zer-nolako indarra daukan bere seme-alaben ikaskuntza-prozesuan eta irakasleok proposatuz eta lagunduz parte hartzen dugula. Rol hori indartu behar dugu”.
- Nerabeen autonomian sakondu behar da eta eta “antolakuntzan izan litezkeen behar bereziak bideratu beharra agertu da”.



“Ezin dugu jada pasa den mundurako hezi”

# ELKARRIZKETA: NELI ZAITEGI

---

## MAISTRA ETA PEDAGOGOIA

Abanton jaiotako emakume hau jakin-minak asko erakartzen zuen txikitatik. Anaia zaharragoen liburuak hartu eta txundituta begiratzen zien hizkiei. Zortzi urterekin hasi zen eskolan eta han ezagutu zuen maistrak pentsatzen irakatsi zien. "Emakume indartsua zen, asko zekiena, eta niri gogoa berotzen didate asko dakitenek, oraindik ere bai. Harengatik naiz maistra". 24 urtez aritu zen gelan umeekin, zuzendari gero, ikuskari izana da, ehunka zuzendaritza talde formatu ditu eta Eusko Jaurlaritzako

Hezkuntza Sailean ere aritu zen. Duela hamar urte jubilatu zen, baina Euskal Herritik kanpora formazio saioak ematera joateko beta hartu zuen. Azken lau urteetan Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakari kargua bete du eta orain uztekoa da. Amaiera bikaina izan dela dio, asko ikasi duela. Halere, ia ziurra da ez dela erabateko amaiera izango, hezkuntzari lotuta jarraituko duela, beste hobby batzuk badituen arren, benetan arima berotzen diona hezkuntza baita.



**COVID-19a, konfinamendua, eskolak itxita. Bizitzea egokitu zaigun egoera honetan nola ikusi duzu hezkuntza eta zer irakaspen ekarri ditu?**

Ikastetxeetan eta irakasleen artean lan ikaragarri egin duen jendea egon da —beste kontu bat da nola egin den—. Nik uste dut borondaterik onenarekin jendeak berehala erreakzionatzeko gaitasuna eduki duela.

Agian ikasi dugu kontua ez zela ikasleak okupatuta edukitzea, baizik eta nola baliatu egoera beste ikasketa batzuetarako: familian kolaboratzen ikasteko, etxean gauzak partekatzen ikasteko, egoteko, elkar zaintzeko, elkarri mimoak egiteko... Lantzeko aprobetxatu daitezkeen gauza zoragarriak egon dira.

Interesgarria izan da gelditzeko eduki dugun aukera. Zeren gelditzen ez bagara eta azterketa bat egiten ez badugu, alferrikako lana izango da. Bizitu dugun esperientzia guztia aztertu egin behar da.

Nik uste dut birmoldatzeko garaia dela hau; zaintzeko, mimatzeko, jakiteko. Bizitu dugun guztia hitzez adierazi behar dugu, pertsonalki eta kolektiboki suposatuta digunaren kontzientzia hartu behar dugu. Hausnartzeko aukera zoragarria da eta pena litzateke galtzea.

**Zer hausnarketa egin dituzu zuk?**

Nik uste dut koronabirusarekin zaurgarriak eta elkarren mendekoak garelako konturatu garelako. Eta hori horrela bada, soluzioek ere kolektiboak izan behar dute. Umiltasun handia behar dugu. Nik uste dut koronabirusak zerbait erakutsi baldin badigu, umilak izaten dela. Ez dakigula esaten. Eta orain, dena birpentsatu behar dugu: eskola, harremanak, zer mundu nahi dugun, nora joan nahi dugun... Zeren etorkizuna ez da joan behar dugun leku bat, eraiki behar dugun mundu bat baizik. Nora joan nahi dugun jakin behar dugu, ez baitago haize onik norabide gabeko itsasontziarentzat. Lehengo gauza bera egiten jarraitzen baldin badugu, orain daukagun gauza berbera edukiko dugu. Beste gauza bat nahi badugu, beste zerbait egin behar dugu, nabarmen. Beraz, zer egin behar dugu hezkuntzatik gizarte desberdin horretara joateko? Zeren hezkuntzak oinarri-oinarrizko funtzioa dauka horretan, hezkuntzaren bitartez egingo da hori.

Eta hori hezkuntzan argi eduki behar da. Ezin dugu jada pasa den mundurako hezi. Ezin ditugu erabakiak hartu atzerako ispilutik begiraturaz. Hori jada pasa da. Aurrera begiratu behar dugu.

Krisi hau nora joan nahi dugun argitzeko baliatu behar dugu, hezkuntzaren zentzua aurkitu behar dugu, benetako zentzua, horixe falta zaigula uste baitut; hezkuntzaren benetako zentzua. Zertarako gaude hemen? Zentzurik ez badiogu aurkitzen, alferrik gabiltza. Zer-nolako mundua nahi dugu? Nora doaz gure haurrak? Nolakoa izango da mundua? Nolakoa izatea nahi dugu? Goazen eraldaketarako prestatzera. Paulo Freirek zioen bezala: guk ez dugu mundua aldatzen, guk mundua aldatu behar duten pertsonak aldatzen ditugu.

Ezin dugu aldatu gelditu eta hausnartzen hasten ez baldin bagara. Hori funtsezkoa da mundua ulertzeko. Eskolak aldatzen den mundua ulertzen erakutsi behar du. Bizi garen mundua ulertzea edo ulertzen saiatzea funtsezkoa da. Eta horretarako pentsatzen jakin behar da. Non dago jendearen pentsatzeko gaitasuna? Zein da daukagun helburua? Zentzua eduki behar du. Jendea ibili egiten da, baina nora doan jakin gabe. Eta oinarritzeko da bizitzaren zentzua ikustea.

**Nondik hasiko zinateke hezkuntzaren zentzua bilatzen?**

Nik uste dut hezkuntzan bihotza-zaintza, burua-pentsatzea eta eskuak-

egitea jarri behar direla balioen eta helburuen zerbitzura.

### **Lehendabizi zaintza aipatu duzu, konfinamendu garaian asko azpimarratu den alderdia.**

Bai, bihotza, zaintza, emozioak. Konfinamendu egoeran ikasleen arteko arrakala hazi egin da eta horrek asko kezkatzen nau. Zer gertatuko da irailan? Edukiez, espazioez, distantziaz, maskaraz... asko berba egiten da, baina zer egingo dugu zaurituta etorriko diren ikasleekin, sei hilabetetan euskararik entzun ez dutenekin... Nola itzuliko dira? Izugarritzko zainketa emozionala beharko dute irailan.

Zainketa emozionalaz hitz egiten dugunean ez dakit jendeak zer pentsatzen duen, negar egitea dela-edo. Ez, zainketa emozionala hor nagoela, inporta zatzaizkidala eta elkartzeak pozten gaituela sentitzea da. Harremanak dira, begiratzea, besoetan hartzea, bihotzean sentitzen dena. Gauza horiek funtsezkoak dira eta horrek sentiarazten gaitu garrantzitsu eta baliotsu. Ikasketak etorriko dira gero, baina emozio positiborik gabe ez dago ikasketarik.

Nik, maistra gisa, nire ikasle guztiak eta bakoitza ongi egoteko erantzukizuna daukat, ongi ez badaude ezingo baitute ezer ikasi. Beraz, zainketa eta mimo horretatik abiatuta planteatu ditzakegu gainerako gauzak. Gainera, bada beste gauza bat ere: maistra gisa nire helburuak ez du izan behar irakastea, baizik eta aukerak sortzea ikasleak ikas dezan. Niretzat maistra bestea haziarazten duena da, bestearen onena ateratzen duena.

Esandako guztiagatik, uste dut ikasturte honen itxiera ongi egitea garrantzitsua zela. Umeak parkeetara, kalera... joan dira, eskolara ez. Nik behin eta berriz esan dut ezin genuela oporretara joan egoera honi irtenbiderik eman gabe. Nik gutxienez egun batean eskolan bilduko nituen umeak talde txikitan, jolas-lekuan, distantziak gordez, eta bakoitzak konta zezala nola bizitu duen konfinamendua, elkarri entzun, irakasle guztiak ikusi, irakasleek ere kontatu nola bizitu duten eta denok lehenengo aldiz bizitu dugun garaia izan dela azaldu. Bakoitzari gutun-azal batean

hitz esanguratsu batzuk emango nizkion idatzita, aholkutxo batzuk eman, deskantsatzeko eta uda ondo pasatzeko esan, eta irailera arte agurtu.

Irakasleekin ere egingo nuen zaintza hori. Denak bildu eta koronabirusarekin zer ikasi dugun aztertuko nukeen, orain, berotan, irailera arte itxaron gabe. Nola bizitu dugun kontatuko genioke elkarri, lanean zertan asmatu dugun eta zertan ez, eta hortik ikasi. Berdinen arteko ikasketaz baliatuko nintzateke teknologia digitaletan trebatzeko denak. Irakasleak elkartu eta ikasleei buruz hitz egitea ere garrantzitsua iruditzen zait, banaka-banaka, nola ikusi ditugun, zer behar duten eta irailan zer egingo dugun hitz egin: aurrena bihotza, alderdi emozionala, eta gero akademikoa.

### **Zaintza eta bihotzaz gain, hezkuntzari zentzua ematen dioten beste bi zutabe ere aipatu dituzu: burua-pentsatzea eta eskua-egitea.**

Bai. Zalantza mundu honetan pentsatzen jakin behar da. Berritot diot: ikasleei ez zaie zer pentsatu behar duten irakatsi behar, pentsatzen irakatsi behar zaie. Eta horretarako galdetu egin behar zaie: zer gertatzen da, nola egingo dugu, zergatik, non, zer ondorio ditu horrek jendearengan, zer irtenbide, irtenbide horrek norbaiti kalte egingo lioke, zergatik, zertan oinarritzen zara, beste modu batera izan liteke, eta horrela ez balitz zer gertatuko litzateke... Hori da ikasleekin landu behar dena. Eskolak pentsatzen irakatsi behar du eta horretatik da oso garrantzitsua burua.

Horrez gain, oinarritzko ezagutza batzuk ere eduki behar dira zerbait egin nahi baldin bada. Biderketak edo batuketak egiten ez baldin badakit edo % 20ko deskontua zenbat den kalkulatzeko, ez dit balio. Bizitzako edozein egoeraren aurrean, izan pertsonala, lanekoa edo soziala, marko bat eduki behar dut, garrantzitsua da burua ongi jarrita edukitzea, pentsatzen jakitea eta informazioa nola bilatu jakitea. Pentsatzeko ohiturak finkatuta eduki behar ditugu. Autoa gidatzen goazenean pentsatu gabe sartzen dugu lehen martxan, bigarrean eta hirugarrenean. Pentsatzen ikasteko ere, gidatzeko bezala, automatizatu

“Krisi hau nora joan nahi dugun argitzeko baliatu behar dugu, hezkuntzaren benetako zentzua aurkitu behar dugu”

“Irailera lehen asteak maitatzeko eta teknologia berrietan trebatzeko erabiliko nituzke”

“Irakaslearen konpromisoak hiru hanka ditu: ikaslearekin, ‘hemen nago ahal duzun gehiena izan zaitezten’; zentroarekin, lan kolektiboa delako eta ez bakarkakoa; eta lanbidearekin, munduko lanbiderik zoragarriena delako”

“Sakoneko elkarrizketarik egin gabe hartzen ditugu irakasleak. Eta gure neska-mutilen bizitzako entrenatzaileak izango dira. Arinkeriaz eta arduragabekeriak jokatzeko dugu”



egin behar da. Hori da pentsatzeko ohiturak barneratuta edukitzea.

Beraz, informazioa eduki behar dugu eta gauza batzuk jakin. Baina, erne! Ez inoiz erabiliko ez dugun datu mordo bat. Jakin behar duguna da non aurkitu datuak, nola bilatu informazioa, nola aukeratu, *fake news* sak bereizi, nola hautatu fidagarria den informazioa, nola bihurtu hori ezagutzan behar dugunari erantzuteko eta abar. Horrek guztiak bizitzarako, lanerako eta denerako balio du, pentsamendu konpetentziak direlako.

Eta gero eskuak, egitea; jakiteaz gain, egitea. Konfinamenduko gauzarik politenetako bat izan da familiek ikustea semea edo alaba hitzaldi bat ematen egindako proiektuaren inguruan. Sorpresa bat izan da askorentzat, eta familiak konturatu dira hezkuntzak zertarako balio duen eta zertarako ez. Proiektuekin lan eginez ikaragarri ikasten da. Pentsa etxeko garbigailua apurtzen dela. Zer egiten duzu? Bizitzako arazo errealak jarri eta bila dezatela informazioa. Bizitzako milaka egoerek balio dute, horiek dute zentzua, ez dago fikziora jo beharrik. Zentzurik ez duena da azterketa baterako ikasi eta berehala ahanzteak.

### Zaintzaz hitz egin duzunean, ikas- turtea nola bukatuko zenukeen esan duzu. 2020-2021ekoa nola hasiko zenuke irailean?

Hasteko, egoerak buru oso malgua edukitzea eskatzen digu, egiten dakigunetik eta segurtasuna ematen digunetik ateratzea. Orain ziurgabetasunean bizi behar dugu. Hori funtsezko ikasketa da.

Hiru eszenatokian aipatzen dira, eta hiruretako edozeinetan egonda ere, iraileko lehen asteak maitatzeko eta teknologia berrietan trebatzeko erabiliko nintuzke. Alde batetik zainketa emozionala beharko dute ongi egoteko, eta bestetik teknologiak ongi erabiltzen ikasi behar dute, ez baita gelan egiten den gauza bera egitea, baizik eta informazioa bilatzen ikastea eta plataformak erabiltzen ikastea. Horretan entrenatuko nintuzke — aurretik irakasleak ere entrenatuta, noski — gerora erabili beharko baituzte. Teknologia bitarteko bat da, ez helburu bat, baina maneiatzen jakin behar da funtsezko ezagutza delako; bizitzan ikasten jarraituko dute eta hori teknologiaren bitartez egingo dute. Beraz, erakuts diezaiegun ongi erabiltzen.

Horrekin batera autonomia landuko

nuke, irakasle guztiak bat baitatoz horrekin: konpetentziak landu eta ikasten ikasi behar dute. Hori da oinarritzkoa, utzi ezagutzak alde batera.

Lehenengo eszenatokian, eskolara ohiko moduan itzuliz gero, eskolari buelta emango nioke, beste era batera antolatuko nuke dena: denborak aldatu, taldeak aldatu, espazioak aldatu, pasilloak gehiago erabili, gela batean bi irakasle jarri eta beste gelakoak lasai bakarrik utzi, eta kalera atera, ahal nukeen guztia kalean egingo nuke.

Adinak nahastuko nituzke taldekatze bertikalagoak eginez, ikasleak beste ikasle batzuen tutore bihurtu, ikasle laguntzaileak sortu, talde-lanaren bidez elkartasuna bultzatu. Adin desberdinetako ikasleen artean egiteko proiektuak eta erronkak proposatuko nituzke. Lan-saioak luzeago egingo nituzke: hiru ordu laurdenekoan partez bi ordukoak, lasaiago egoteko, irakurtzeko, berba egiteko, lasaitasunez pentsatzen ikasteko. Eskola kalera aterako nuke eta kalea eskolara sartu. Boluntarioak inplikatuko nituzke.

Bigarren eszenatokian ikasle gutxiago hartu behar baldin badira, talde desberdinak eta lan desberdinak egingo nituzke. Eskolan eta beste espazio batzuetan bakarrik lan egiteko antolatu behar dira, edo handiagoak baldin badira etxean gelditzeko.

Orduan, antolatzen ikasteko proiektuak eman behar zaizkie, hori baita garrantzitsuenak, antolatzen ikastea. Talde heterogeneoak egingo nituzte ikasleak nahastuz. Nahastuz diot, ez segregatuz.

Hirugarren eszenatokian eskolara joan ezinik berriro konfinatuta baldin bagaude, jada teknologietan entrenatuta egotea da gakoa. Online irakaskuntzan nola ikasten den jakin behar dugu. Orain arte ez dugu hori egin, nola hala moldatu gara, baina online irakaskuntzak beste metodologia bat eskatzen du eta hori ikasi behar da. Ikastetxe bakoitzeko irakasleentzat ikastaro indartsu bat egingo nuke, denak plataforma berberarekin.

Eta behin etxean daudelarik, bizitzen ari diren egoerak pentsatzen ikasteko baliatu behar dira: egunerokoak idatziz, deskribapenak eginez, familiaren historia idatziz,

aitona-amonei galdetuz... Inguruan daukagunetik ikastea izugarria da. Matematikak eta beste hainbat gauza eguneroko bizitzako grafikoein, datuekin eta abar ikas daitezke. Nik bizitzako gauzak baliatuko nituzke. Utzi curriculumak eta gainerakoak; bizitza.

Ahozko adierazpena ere landuko nuke: aurkezpenak eta konferentziak prestatu, grabatu, bidali, beste ikaskideekin partekatu...

Ez nintzateke jarriko teorema bat esplikatzen bideokonferentzia bidez. Deskubritu eta bilatu dezatela beraiek, edo bestela, ongi egindako plataforma bateko bideo bat erakutsi.

**Aldaketa horiek egin daitezke? Zeren ikuskariak hor daude eta azken hilabetetan askok aipatu dute ikuskaritzaren presiopean egon direla eta ebaluazioa, ebidentziak eta beste hainbat kontu eskatu zaizkiela.**

Bai, egin daiteke, eta inolako arazorik gabe. Nork egiten du curriculumean dagoen guztia? Testuliburua erosten duenak eta bukatu nahi duenak. Baina horrela ez dute ezer ikasten ikasleek. Teoria pedagogikoak dio ikasketak sakonak pentsamendu ohituretan bihurtzen direnak direla, horiek direla soinean daramatzagunak, naufragio batean galtzen ez ditugunak. Horregatik, ezagutza eta eduki asko kendu eta oinarritzko gauzetara joko nuke, bizitzara.

Ni 24 urtez egon nintzen gelan haurrekin eta askotariko ikuskariak izan nituen, eta ni neu ere ikuskari izana naiz. 14 urtez zuzendaritza taldeak prestatzen aritu nintzenean zuzendariei esaten nien ez zela egia ikuskariak oztupoak jartzen zizkiela, baizik eta eurek erabakiak ez hartze-ko jartzen zuten aitzakia zela.

Ikuskaritza zerbitzu bat da eta ikastetxeen zerbitzura dago. Egia da ikuskaritza zerbitzuari ere buelta bat eman behar zaiola, ea goitik datorrena behera iristeko den edo behetik datorrena igotzeko.

Nik beti esan izan dut espresuki debekatuta ez dagoena onartuta dagoela. Inork ez du gelditzen ongi oinarrituta dagoen eta atzean talde bat duen berrikuntzarik. Hori bai, ongi oinarrituta eduki behar da. Gainera,

batzuetan araudiari ez zaio jaramonik egin behar, legeak beti jendearen beharren atzetik baitoaz. Eta beraz, zentzua galdu duen araudi bat eduki dezakegu.

**Zeregin horretan kokatzen da irakaslea. Nolakoa izan behar du, zure ustez, irakasleak, hezitzaileak?**

Lehen esan dut maistraren egitekoa norberaren alderdirik onenak ateratzea dela, besteak haziaraztea. Athleticek jokalaririk onena hartzen baldin badu eta miloika euro ordaintzen baldin badizkio entrena dezan eta onena izan dadin, nik zera diot: bizitzarako entrenatzea Athleticerako entrenatzea baino askoz garrantzitsuagoa da. Orduan, bizitzarako entrenatzeko entrenatzailerik onena behar da. Eta bizitzarako entrenatzeko entrenatzailerik onenak pertsonarik onena izan behar du. Eta pertsonarik onena izateak esan nahi du bihotzetik, burutik eta eskutik asko edukitzea. Bermude-tako hirukoa.

Irakasle ona izateko bihotzarekin lotutako konpentzia bigunak deitzen direnak behar dira —nahiz eta, nire ustez, gogorrenak izan irakasle gorputza ematen digutenak direlako—: geure burua ezagutzeko gaitasuna, erregulatzeko gaitasuna, enpatia gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna, erresilientea izateko gaitasuna, adimen interpersonala, entzuteko gaitasuna, gatazkak kudeatzeko abilezia denak irabazten atera daitezken, dakiena ongi adierazteko gai izatea... Horiek denak bihotzari lotutako konpetentziak dira.

Gero, buruarekin lotutako ezau-garriak daude: Haur Hezkuntzako nahiz Bigarren Hezkuntzako ikasleen garapen ebolutiboari buruz jakin behar du: zein diren jarrerak, aldaketak, motibazioak... Eta Soziologiaren ere jakin behar du, zein mundutan bizi garen, alegia. Zerbitzu espiritua edukitzea ere garrantzitsua da: hemen nago ikasle hauek denak izugarriak izan daitezken.

Eta hori dena eskuetara pasatzen jakin behar du. Irakaslearen konpromisoa edo egiten jakitea esan nahi du horrek. Zeren gauza bat da jakitea, beste bat nahi izatea eta bestea egiten jakitea. Hau da, gai izatea. Egiten

“Nik bizitzako egoerak baliatuko nituzke. Utzi curriculumak eta gainerakoak; bizitza”

“Ikuskaritza hor egon arren, gauzak egin daitezke, inolako arazorik gabe. Inork ez du gelditzen ongi oinarrituta dagoen eta atzean talde bat duen berrikuntzarik”

“Espero dut, luze gabe, funtzionariotza sistema desagertzea”

“Udalei boterea eman behar zaie, ez dute-eta. Zeren gertukoak, ezagutzen duenak eta bizi duenak errazago konpontzen ditu gauzak”

“Autonomiak gauza bat dauka: erabakitzen duenak, erabakien ardura hartzen du”

“Osakidetza bat behar dugu, Hezkuntzaketza”



jakite horrek esan nahi du ikasleekin batera jardun behar dela, haiekin jarri behar dela praktikan.

Hezitzaile izateak gauzak hobeto egiten jarraitzeko nahia esan nahi du. Ingurua eta behar sozialak aldatuz doaz eta hezitzaileak argi eduki behar du bere ikasleak mundu horretarako prestatu behar dituela eta haientzat hoberena bilatu behar duela. Irakaslearen konpromisoak hiru hanka ditu: ikaslearekin, “hemen nago ahal duzun gehiena izan zaitezten”; zentroarekin, lan kolektibo delako eta ez bakar-kakoa; eta lanbidearekin, munduko lanbiderik zoragarriena delako. Inor ez da irakaslea bezain garrantzitsua; konpromiso hori, etengabeko birziklatzea, zer gertatzen ari den ulertzea, gainerako irakasleekin elkartzea, sareak egitea...

### **Nola prestatu behar dira bizitzarako entrenatzaile horiek?**

Hasierako prestakuntzarako curriculum praktikoa izan behar du. Zeren ohiko moduan eskolak ematen jarraitzen baldin badugu, gero ikastetxeetan horixe errepikatuko dute. Beraz, formazioan proiektuka, ikerketa taldetan eta erronkekin lan egin behar dute. Ekitatea, hezkidetzak, inklusioa, justizia, jasangarritasuna...

gaiak landu behar dituzte. Horiek osatzen dute irakasle batek eduki behar duen muina, Garapen Jasan-garriaren Helburuak. Metodologiak eta ebaluazioak erabat desberdina izan behar du. Alderdi emozionalaren garrantziaz jabetuta atera behar du eta pentsamendu ohiturak ongi hartuta ikastetxe batera joaten denean han gauza desberdinak egiteko, asmatuz, errepikatu gabe.

Eta gero praktikak eta praktika horien jarraipena. Finlandian, Herbeheretan eta Europako beste herrialde batzuetan egiten duten moduan: praktikei gertuko jarraipena ematen diete eta praktikaldiak ongi egiten ez badituzte ez dute irakaskuntzan jarraitzen. Eta ez da ezer gertatzen, ez baitago hemen dagoen funtzionariotza espiriturik, “ni eta neure eskubideak”. Hemen asko hitz egiten da eskubideez, eta non daude gure betebeharrak? Hori da gizarte honetan daukagun arazoetako bat: eskubideez hitz egiten da eta betebeharez ez.

### **Prestakuntzaren ondoren aukeraketa dator. Nola aukeratu behar dira ikastetxeetan lan egiteko irakasleak?**

Aukeratzekotan nik onenak nahi ditut, dudarik gabe. Eta horretarako, garrantzitsua da aurrez aurreko

elkarrizketa bat egitea. Zuk hartuko zenuke etxe-garbitzaile bat aurretik aurpegirik ikusi gabe? Izugarria da gertatzen dena, sakoneko elkarrizketarik egin gabe hartzen ditugu irakasleak eskoletan. Eta gure neska-mutilen bizitzako entrenatzaileak izango dira. Arinkeriaz eta arduragabekiaz jokatzeko dugu.

Paperek 49,9 balio dute eta elkarrizketak 50,1. Oposizioak zentzugabeak dira. Aipatu dugun irakasle ereduak behar dugu eta buruz ikasteko hiru mila gai zaharkitu jartzen dizkiegu.

### **Funtzionariotza sistema oztopo ikusten duzu aukeraketa on baterako?**

Bai, eta espero dut, luze gabe, sistema hori desagertzea. Egokiena irakasleak komunitateak aukeratzeko izango litzateke, Europako zenbait lekutan bezala. Baina hemen funtzionariotza sistema daukagu eta hori kendu bitartean posibilitateak izan gaitezke, Katalunian bezala: komunitateak irakasleen % 30 aukeratu dezake eta gainerakoak egokitzen zaizkionak. Nik uste dut, funtzionariotza sistema edukita ere, posible litzatekeela ikastetxe batera etorri behar dutenei elkarrizketa egitea, zentro horretan lana nola egiten den ikus dezaten eta haiek ere nora doazen jakin dezaten.

### **Sindikatuarekin partekatu duzu inoiz iritzia hori?**

Begira, ni sindikatu batekoa izan naiz bizitza osoan eta huelgak eta denetarik egin dut. Baina sindikatuen esparrua laborala eta lan-baldintzei lotutakoa zen, ez pedagogikoa. Nik ez diot inoiz galdetu sindikatu bati nola taldekatuko ditudan umeak. Sindikatuak lan arloan; pedagogikoan gu. Uste duzu sindikatuak Renaulti esaten diotela zer automobil-modelo egin? Uste duzu BBKri esaten diotela zein kreditu mota eman? Ez, sindikatuak lan-baldintzekin lotutako gaietan aritzen dira. Hezkuntza ere berdin: lan arloan nahi duten guztia, baina pedagogikoan ez.

### **Familia eta eskolaren arteko elkar-lana garrantzitsua da. Nola ikusten duzu familien parte-hartzea?**

Ez da hezkuntzako kontua soilik, orokorra da, gizarte osoan pasatzen



da: ez da parte hartzen. Zergatik? Jendeak uste duelako ez duela ezertarako balio. Esfortzu bat eskatzen dio eta gero ez du horren emaitzarik ikusten. Parte-hartzea ez denean erabiltzen erabakiak hartzeko, beste helburu faltsuetarako erabiltzen denean, jendeak ez du parte hartu nahi. Jendeak gauzak proposatzen dituenen eta ez direnean praktikara eramaten, jendeak ez du parte hartu nahi.

Hezkuntzan familiek informazioa eta gardentasuna eskatzen dituzte, eta haiei ere galdetzea. Eta galdetu ondoren erantzutea, itzultzea. Oso garrantzitsua da beti itzultzea. Nik behin eta berriz diot irailerako prestatu behar dena familiekin adostu behar dela. Zergatik? Familiek beharrak dituztelako eta eskolak kontuan izan behar dituelako. Ez gara haurtzaindegiak, baina zerbitzu publikoa ematen dugu.

Parte-hartzea komunitate gisa ahotsa edukitzea da. Ahalduntzea eta hiritar gisa benetako zentzua ematea da. Horrek indartsu egiten gaitu.

### **Nola ahaldundu daiteke komunitatea?**

Komunitatea sortzeko garrantzitsua da nortasun sentimendua izatea eta nonbaiteko kide sentitzea: ikastetxe-ko kide, herriko kide... AEBetan hori asko lantzen dute, familia eta ikasle guztiek —curriculumean sartuta dute— egin behar dute zerbait urtean zehar eskolarentzat. Zergatik ez dugu guk ere komunitatearen ideia hori zaintzen? Eta hori lortzen da gauzak eginez eta erabakietan parte hartuz.

Ahalduntzeak esan nahi du ongi justifikatutako hezkuntza-proiektu bat edukitzea, txorakeriarik gabekoa, zer egin den argi edukita eta hezkuntzako komunitate osoak onartutakoa. Teorikoki eta praktikoki ongi oinarritua eta komunitate osoaren konpromisoa duena.

Komunitateak ahalduntzeko jakin behar du zer den herritar izatea, alegia, ez garelako menekoak, ez gaudelako besteek zer egin behar dugun esan zain. Ez gara menekoak, herritarrak baizik.

### **Udalek beste botere, eskuduntza eta funtzio bat eduki beharko luketela uste duzu?**

Hasteko, udalei boterea eman behar zaie, ez dute-eta. Zeren gertukoak, ezagutzen duenak eta bizi duenak

errazago konpontzen ditu gauzak. Horretarako araudi bat beharko litzaiteke. Baina hala eta guztiz ere, udalak ahalduntzen baldin badira eta dauden markoetatik ateratzen baldin badira, gauza zoragarriak egin daitezke, betiere kohesio soziala, partaide sentimendua, justizia, ekitatea... sortuz eta bultzatuz. Berriro ere Europako hainbat herrialdeetako ereduak dauzkagu, ikastetxetako zuzendariak herriko hezkuntza komunitateak aukeratzen dituen ereduak.

Udalek zer-nolako gizartea nahi dugun planteatu behar dute eta herri-tarrek parte hartzeko ekimenak sortu. Eragile orekatzaileak izan behar dute eta herriko aniztasuna eta aberastasuna kudeatu. Elkarbizitza bideratu. Herriko ikastetxe guztiak elkarrekin bizi daitezela. Eskola heterogeneoa dagoen aberastasunik handiena da.

### **Ikastetxe publikoek autonomia gehiago eskatu izan dute sarritan, eta administrazioak erabakiak ikastetxeen esku utzi dituenen COVID-19a dela-eta, ez zaie ongi iruditu. Zer gertatzen da?**

Autonomiak gauza bat dauka: erabakitzen duenak, erabakien ardura hartzen du. Horregatik ez du inork erabaki nahi orain.

Autonomiak esan nahi du erabakiak hartzen ditugula, beraz, ongi neurtu behar dugu zein erabaki hartzen ditugun: teorikoki oinarritu eta erabakia- ren zergatia ere oso ongi funtsatu. Eta erabaki horrek erantzukizuna dakar. Guk erabaki dugu, beraz, gu gara erantzule.

Hortaz, ikastetxeen autonomiak esan nahi du oso argi eduki behar dugula zergatik hartzen ditugun erabakiak. Oso ongi prestatuta egon behar da eta ongi trinkotuta. Eta erabakiak komunitate osoak hartu behar ditu, komunitateak hartu behar du erantzukizuna eta gero gizarteari kontuak eman behar dizkio.

### **Euskal Eskolaren Legea jorratzen ari da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Zer espero duzu?**

Oso oinarritzakoa, oso samurra, laburra eta funtsezko gaiak dituen izatea espero dut. Orain eta hemendik hamar urte barru balioko duena,

egungo garaiekin bat datorrena, etorkizunari begiratzen diona, gauzak ixten ez dituen eta gobernatzen duen edonorentzat balioko duena. Legea egiten dutenek dena zehaztuta uzteko ohitura dute hemen, eta horregatik, hurrena etortzen denak ez duenez ezer egiteko aukerarik ikusten, beste lege bat egiten du. Ez, egitura egin behar da, etxea, eta gero bakoitzak apainduko du nahi duen bezala. Baina armazoiak sendoa izan dadila, zer ongi zehazten duena. Eta zer hori hezkuntzaren zentzua da, eta hori bultzatu nahi dugun pertsona ereduari lotuta dago, horrek dakartzen oinarriekin eta kompetentziekin. Baina samurra izan dadila. Finlandian 16 orrialde ditu legeak eta hemen 400!

Eskola zerbitzu publiko gisa antolatuta behar da, komunitatearen zerbitzura. Nik sare bakar bat planteatuko nuke eta ikusi nola bideratzen ditugun sare kontzertatukoak publikora. Osakidetza bat behar dugu, Hezkuntzaren Osakidetza. Zuzenean politikoen baitan ez dagoen organo autonomo bat behar dugu, exekutiboagoa izango dena. Horrek kudeatuko lituzke ikastetxe guztiak eta ebaluatu ere bai. Diru publikoa denentzat, baldintza berberetan, eta horrek dakar erabakitzea zer hezkuntza nahi dugun eta nola antolatzen garen.

Funtzionariotza kenduko nuke eta kontratu bidez funtzionatu: publiko-koak ez lirateke funtzionarioak izango eta irakasle guztiak elkarriketak eginda sartuko lirateke ikastetxeetan. Kriteriodun enpresak jarriko nituzke irakasleei elkarriketak egiten, ez ikuskariak edo zozketa bidez aukeratu- tuko epaimahaiak. Horrek jarrerak eta beste hainbat ezaugarri baloratze-ko aukera emango luke. Beraz, funtzionariorik gabe, sare bakar bat eta denak baldintza berdinetan sartuko lirateke.

Ebaluazio garrantzitsua egingo nieke ikastetxeei. Ikastetxeetako proiektuak eta erabakiak hartze-ko aukera ematen dien autonomia indartuko nituzke, baina gero kontuak emanez, bai ekonomikoak eta baita gainerakoak ere, hala komunitateari nola Hezkuntzaren, horrek eman- go baitie dirua eta jakin behar baitu zertan erabili duten.

# ESPERIENTZIAK

'TRATUONARTE' EGITASMOA

## Haurrek eta gazteek nola tratatuak izan nahi duten adierazi dute

Alderdi emozionala lantzeko modu bat baino gehiago daude eta Bidegintza gizarte ekimeneko kooperatibak bide berri bat urratu du: Bilboko 800 haur eta neraberi galdetu die nola tratatuak izan nahi duten irakasleen eta gurasoen aldetik.

**B**idegintza gizarte ekimeneko kooperatiban urte dezente daramatzate haurtzaroaren eskubideen defentsan lanean haurrei protagonismoa emateko eta haurrak erdigunean jartzeko xedez. Haurrak babestea, prebenitzea, ez baztertea, parte hartzea eta haien interesak defendatzea da nahi dutena, eta horretarako hainbat ekintza eta jarduera eramaten dituzte aurrera, betiere pertsonak, komunitatea eta komunitate zentzua indartuz, haiei protagonismoa emanez. Haurrekin, familiekin eta zaurgarritasun egoeran dauden taldeekin aritzen dira.

Zeregin horretan funtsezko elementu batetaz ohartu ziren: garrantzitsua dela haurrei beraiei galdetzea nola nahi duten eta gustatzen zaien helduek tratatzea, bai gurasoek, bai irakasleek eta baita inguruan dituzten gainerako helduek.

Abiapuntu hori hartuta garatu dute TratuonArte egitasmoa azken hiru urtetan. 2017aren bukaeran eta 2018an zehar ekintza sorta askotarikoak burutu zituzten haur, gazte, nerabe eta helduekin eta 2019n, ekintzak egiten jarraitzeaz gain, ekintza horietatik



ateratako informazioa eta datuak bilduten eta sistematizatzen jardun ziren. Mila hausnarketa baino gehiago bildu dituzte eta horiek denak argitaratu eta jendartearen eskuetan jarri dituzte haurren tratu onaren gaineko kontzientzia zabaltzen joan dadin.

### TratuonArte, tratu onak gehi artea

Kanpaina modura diseinatu eta garatutako proiektu honen muina haurren tratu onak eta artea dira. Haurren parte hartzea bultzatzeko eta, aldi

berean, tratu onaren gaineko sentsibilizazioa mahaigaineratzeko erabili dute. "Bidegintzaren misioaren eta balioen barruan sartzen da tratu onaren kultura sortzea eta zabaltzea, eta horretarako balio izan du egitasmo honek", dio Begoña Ruiz Bidegintza-ko psikologo, gizarte hezitzaile eta psikomotrizistak.

Horretarako, hiru oinarri izan ditu egindako prozesuak. Lehendabizikoa, tratu onaren inguruan sentsibilizazioa. Bigarrena haurrei parte hartzeko



aukera ematea, haien ahotsa entzutea, zuzenean haiei galdetuz. Eta hirugarrena, artea erabiltzea bitarteko gisa eta horrekin sormen adierazpena sustatzea. “Erabili dugun metodologiak artearekin eta sormenarekin zerikusia du. Hau da, argazkia, pintura, eskultura, mugimendua... erabili ditugu tailerretan eta ekintzetan eta horien bidez adierazi dute nola nahi duten tratatuak izatea eta nola tratatu ditzaizketen eurek ondo bestek”, azaltzen du Ruizek.

Hala, jolas eta sormen artistikoko tailerrak egin dituzte haurrekin eta nerabeekin. Guztira berrogeita lau tailer egin dituzte ikastetxeetan, gizarte hezkuntzako erakundeetan, aisialdi taldeetan eta abar. Jolasa, lan kooperatiboa eta sormen adierazpena izan dira metodologia gisa erabili dituztenak. Hasteko, harrera uneari eman diote denbora testuinguruan kokatzeko eta horretarako gorputz adierazpenaz baliatu dira. “Lotura emozionala eta gozamina lortzea errazten du horrek, eta hurrengo ekintzetarako prest egoten laguntzen du”, azaltzen du Ruiz gizarte hezitzaileak. Behin hori eginda, tratu onaren inguruko hausnarketak egin dituzte jolasaren bidez. Ipuiak, istorioak, komikiak eta bideo laburrak entzun eta ikusiz eztabaida zabaldu dute, eta gaira egokitutako mahaiko, mugimenduko edo beste-lako jolas kooperatiboak ere baliatu dituzte. “Ondoren garrantzitsua izan

da feed-backa eta ekarpenak jasotzea, egindako hausnarketan laburpena eginez eta pixka bat urrunago joatera gonbidatuz. Pentsamendu eta gogoeta kritikoa sustatzen ahalegindu gara baliozkotzeekin, ideien bideratzeekin, positibizazioarekin, hainbat motatako eskalekin, gehienekoen eta gutxienekoen galderekin eta abar”. Lanketa hori guztia egin eta gero, haurrek eta gazteek beraieganako tratu onaren inguruan duten kontzeptua islatzeko gonbita egin zaie, eta hori pinturaren, eskulturaren, argazkiaren, musikaren, dantzaren, collagearen, dramatizazioaren bidez egin dute. Sentitzen, pentsatzen eta bizitzen duten hori adierazteko bihotzak, eskuak, zuhaitzak, ostadarra, eguzkia, haurrak eta helduak tratu on ekintzetan eta elementu abstratuak erabili dituzte. Tailer guztiei agurra edo bukaera eman diete sortutako lanak aztertuz, tailerraren ebaluazioa eginez eta taldeko argazkia ateraz.

Haurrekin bezala, helduekin ere egin dituzte antzeko tailerrak, erantzun deskribatzailea duten inkestak, eztabaida taldeak eta abar.

Azkenik, tratu on astea antolatu dute eta aste horretan tailerretan sortutako lanen erakusketa egin dute, Haurtzararen Eskubideen Eguna ospatu, tailer berriak egin eskolako taldeentzat eta familia guztiarentzako jarduerak (dantza, adierazpen mugimendua, dekorazioa, pintura...).

Tailerretan zein aste horretan

egindako ekintzen eta hausnarketan inguruko informazioa Bidegintzako blogean jaso dute: <https://buenartarte.blogspot.com>

#### **Haur, gazte eta nerabeen esanak**

Bilboko 800 haur, gazte eta nerabek hartu dute parte ekimenean eta zazpi ikastetxeren eta gizarte hezkuntzako beste hainbat eragileren laguntza izan dute. “Zaila eta konplexua da denek esan dutena laburbiltzea, baina egin dituzten hausnarketetan behin baino gehiagotan atera diren aldagai batzuk badaude”, dio Ruizek. “Alde batetik, familian, ikastetxean, auzoan, medikuarenean, aisialdiko hezitzaileekin... une eta egoera desberdinetan afektibitatea erakustea behar eta nahi dute. Modu batera edo bestera, afektibitatea erakustea, haiengan eta haien aukeretan sinesten dela eta haiengan konfiantza daukagula adieraztea behar dute”.

Adinaren, garapenaren eta norberaren nortasunaren arabera desberdintasunak antzeman dituzte erantzunetan. Haur txikienean oinarrizko beharrei buruzko erreferentziak egiten dituzte ongi tratatuak izatea zer den galdetzen zaienean: elikadura, deskantsua, jolasa, osasuna eta gertuagoko afektibitatea eskatzen dituzte. Gazte eta nerabeak helduaren mundura joateko bidean daude eta akatsak egiten uzteko eskatzen dute, askatasun eta autonomia gehiago emateko, errespetuz tratatzeko eta entzuteko.

## ESPERIENTZIA: 'TRATUONARTE' EGITASMOA

**Familian, ikastetxean, auzoan, medikuarenean, aisialdiko hezitzaileekin... une eta egoera desberdinetan afektibitatea erakustea behar eta nahi dute haur, gazte eta nerabeek. Modu batera edo bestera, afektibitatea erakustea, haiengan eta haien aukeretan sinesten dela eta haiengan konfiantza daukagula adieraztea behar dute.**

Harrigarria suertatu den beste aldagai bat aipatzen du Ruizek: gaur egun haurrak babesteko edo gainbabesteko joera dagoen honetan, haurrek eta gazteek autonomoak izaten uzteko eskatzen dute, hanka sartzen uzteko eta denbora guztian gainean ez egoteko. Batez ere nerabeek azpimarratzen dute hori.

“Harritu gaituen beste kontu bat ingurumenarekiko duten ardura da”, gehitzen du Patricia Sanchez Bidegintzako hezitzaileak. “Haiek ongi tratatzea ingurumena ongi tratatzearekin lotzen dute, lurra zaintzearekin. Natura gehiago eskatzen dute ikastetxeetan eta gehiago birziklatzea etxeetan eta eskoletan”.

Oro har ongi tratatuak sentitzen diren arren, beti egiten dituzte hobetzeko proposamenak. Esate baterako, denei berdin tratatzeko eskatzen dute, arreta gehiagorekin egoteko eurekin gaudenean, entzunak izatea nahi dute eta denbora gehiago eskaintzea. “Denbora eskatzen dute, bai, hori sarri ateratu da”, dio Sanchezek. “Familiarekin denbora gehiago pasatzea

eskatzen dute eta horren barruan jolasteko espazio eta denbora gehiago. Jolas horrek ematen die segurtasun emozionala eta harreman lotura”.

### Helduen ikuspuntua

Helduen ikuspuntua ere landu dute TratuArte ekimenarekin. Alde batetik haurrei galdetuz helduek nola tratatzen dituzten, eta beste aldetik helduei beraiei zer den eurentzat haurrak ongi tratatzea. “Ez dago alde handirik batzuek zein besteek esaten dutenaren artean, baina helduak kontzeptuetan geratzen gara: zaintzea, entzutea, errespetatzea... aipatzen ditugu, baina ez dugu mamira jotzen”, azaltzen du Ruizek. “Haurrek egunerokotasuneko gauzak zehatzak aipatzen dituzte, eta helduoi kosta egiten zaigu ariketa hori egitea. Behin hausnarketa egindakoan bai ateratu direla beste zehaztasun batzuk: haurrekin denbora gehiago egotea, barrura begiratzea, emozioak lantzea eta abar. Baina kosta egiten da lur hartzea”. Bidegintzako kideek uste dute egunerokotasunak ez duela aukerarik ematen gelditu eta gauza horietan pentsatzen jartzeko eta hausnartzeko nola egin nahi dugun, nola gauden, nola egon nahi dugun, zein beste modutara egitea gustatuko litzazukeen...

Irakasleei haurrek esandakoa itzuli diete eta harriritu geratu dira haurrentzat eurekin duten harreman afektiboak zein garrantzia duen ikusita. Hezkuntza arloan dagoen eztabaidetako bat da, gainera, afektibitatearen eta mugen arteko oreka; noraino adierazi afektibitatea eta non jarri mugak. Haurrek diote afektibitate hori behar dutela irakasleen

aldetik. Eta baita jolasa ere, jolasteko denbora asko eskatzen dute. “Irakasle bat umore onean etortzen denean, bromak egiten dituenean, jolasaren bitartez ikasten dutenean, esperimentuak egiten uzten ditenean eta abar, ongi sentitzen direla diote”.

Gurasoekin eta irakasleekin egin dituzten hausnarketek eta ekintzek egoera horren kontzientzia hartzeko balio izan dute, bederen, eta horixe da lehen urratsa. “Batuetan aurretik bazekiten gauzekin konektatu dutela aipatu dute, baina orain kontzientziago direla, orain argiago daukatela zer behar duten haurrek eta zer eskatzen duten”, azaltzen dute Bidegintzako bi hezitzaileek. “Aipagarria da, baita ere, haurrak eta gazteak harriritu gelditu direla beraiei galdetu zaizenean. Nabarmen geratu da ez daudela ohituta eurei galdetzeraz eta ‘honek zertarako balio du gero?’ galdetu dute”.

### Materiala eskura


Galdera horri erantzun diete Bidegintzakoek. Hasteko, denek, haurrek, gazteek, nerabeek, gurasoek eta irakasleek tratatu onaren gainean uste dutena ezagutzeko balio izan du. Baita kontzientzia hartzeko ere, eta hortik abiatuta aldaketak egiteko aukera irekitzen da. Bidegintzakoek, hausnarketa guztiak jaso eta argitaratu dituzte, eta tratatu onekin eta haurtzaroaren erresilientziarekin zerikusia duen ipuin bat prestatu dute. Horrez gain, jokoekin osatutako koaderno bat eta ikastetxeei bideratutako beste material bat ere egin dute ikasleen arteko lankidetzaz eta loturak lantzeko eta berdinen arteko gatazkei aurre hartzeko.



## Nola nahi dute euren irakasleengandik ondo tratatuak izatea?


Hainbat testuingurutan nola tratatuak diren galdetu zaie haur, gazte eta nerabeei, besteak beste, osasuna, familia, parte-hartzea, ingurumena, genero berdintasuna, jolasa, politika eta hezkuntza arloetan. Haurrek, oro har, euren irakasleek ondo tratatzen dituztela adierazi dute:

- “Matematika, hizkuntza, gizartea, natura... arloko gauzak erakusten dizkigute”
- “Guztiok berdin tratatzen gaituzte”
- “Triste gaudenean kontsolatzen gaituzte”
- “Zaintzen gaituzte”
- “Elkarren lagun izatea egiten dute”
- “Ez dute jo gaitzaten uzten”
- “Ipuinak kontatzen dizkigute, kantuek kantatzen dizkigute”
- “Ikasteko gauza onak erakusten dizkigute”



## Hobeto tratatuak sentitzeko proposamenak

- “Ikastetxean jolasteko denbora gehiago uztea”
- “Psikomotrizitate gelara joateko denbora gehiago uztea”
- “Hainbeste etxerako lan ez bidaltzea eskolatik ateratakoan jolastu ahal izateko”
- “Hainbeste ez oihukatzea”
- “Ez daitezela pipertuta egon”
- “Gugan sinetsi dezatela”
- “Batzuetan huts egiten utz diezagutela”
- “Irteera gehiago egitea, egun guztia ikastetxean sartuta egotea ‘rollo’ hutsa da”
- “Eskolak dibertigarriagoak izan daitezela”
- “Eskolak ez daitezela hainbeste luzatu”




# EKARPENAK 1

HAURREN BIZIPENAK KONFINAMENDUAN

## Umeen ahotsak konfinamendu garaian: COVID-19

Haurrak COVID-19a dela eta bizitzen ari diren egoeraz kezkatuta, Euskal Herriko Unibertsitateko Bilboko Hezkuntza Fakultateko eta KideON ikerketa-taldeko kide batzuek ikerketa bat jarri dute martxan, konfinamendu-egoeran txikienen ahotsak jasotzea izan duena helburu (Berasategi, Idoiaga, Dosil, Eiguren, Pikaza & Ozamiz, 2020). Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako 2-14 urteko 1.200 haurrek osatu dute lagina. Haurrek konfinamendu-egoeran bizi izan dituzten errealitateak jasotzea izan du helburu ikerketak, haien alderdi emozionalean, fisikoetan, sozialetan eta akademikoetan jarriz arreta.



**Naiara BERASATEGI, Nahia IDOIAGA, Maria DOSIL, Amaia EIGUREN, Maitane PIKAZA eta Naiara OZAMIZ**

KideON ikerketa taldeko kideak



Ikerketa egiteko galdetegi bat diseinatu da *ad hoc*, eta gurasoei edo tutore legalei eskatu zaie elkarrizketa bat edukitzea euren seme-alabekin. Horrela, lehenengo atalean eskatu zaie euren seme-alabei eskatzeko marrazki bat egin dezatela

konfinamendu-egoeran zer egiten duten eta zeren falta sumatzen duten irudikatzen duena. Hortik abiatuta, gurasoei eskatu zaie euren seme-alabekin elkarrizketa bat izateko eta egoera nola bizi duten galdetzeko. Azkenik, gurasoek hainbat galderari

erantzun behar diete euren seme-alaben ongizatearen inguruan.

Ikerketa honetan jasotako datuen arabera, umeez frogatu dute ondo ulertu dutela etxean egon beharra eta COVID-19aren ondorioz ezarritako arauak errespetatu dituztela.

“Birus bat da, eta etxean geratu behar dugu, aurre egin behar diogulako eta txarra delako. Kanean, medikuak heroiak dira, aurre egingo diote eta hilko dute, horregatik ateratzen gara egunero txalo egitera arratsaldeetan” (mutila, 4 urte)

COVID-19a garaitu beharreko etsai modura irudikatzen dute garbi, eta osasunaren alde egiten dute. Medikuek idolatratzen dituzte, lagundu beharreko heroizat hartzeraino. Badakite ere gaixotasuna bereziki arriskutsua dela adineko pertsonentzat, eta benetan izututa daude aitona-amonengatik, zeinak ezin baitituzte aurrez aurre ikusi.

“Ez die umeei minik egiten, baina kutsatu ditzakegu gure aitona-amonak eta horrek beldurtzen nau eta horregatik ezin ditugu ikusi” (neska, 6 urte).

Kontuan hartu behar dugu haurrak gaixotasunaren transmisoreak izan daitezkeela dioen diskurtsoa sakon errotu dela haurrengan, baita gehiegi ere. Izan ere, adierazi dute errudun sentituko lirakeela hurbileko senideren bat kutsatuko balitz.

Konfinamendu-egoerak emozio anbibalenteak sortu dizkie haurrei: pozik egon dira, neurri batean, familian denbora gehiago pasa dutelako eta planteatu dituzten proposamen guztiak egin direlako. Era berean, haurrak bakarrik sentitu dira zenbait kasutan, lagunena falta sumatu dutelako, besteak beste. Alderdi sozialari ere bereziki erreparatu behar diogu.

“Bakarrik sentitzen naiz, ezin naizelako nire lagunekin egon. Bideo-deiak egiten ditut baina ez da berdina, zeren ez ditut denak ikusten, eta ez dakit, aspertzen naiz, bakarrik sentitzen naiz” (mutila, 9 urte).

Hau da, haurrak lagunekin eta irakasleekin gizarteratzeko eremu nagusia dira eskolak, eta harreman horiek guztiak erroten dira. Orain arte,

lan handia egin da eskolaren bidez konpentsatzeko eta arlo akademikoan haurrei laguntzeko, baina harremanen gaia borondatezko gai gisa landu da, eta, beharbada, gutxiago. Ostera, harremanen esparru horrek ere foku bat izan behar du hezkuntza-erakundeentzat, batetik, haur guztiek harremanak mantentzen dituztela bermatzeko, bai ikaskideekin bai irakasleekin, eta, bestetik, haur bakar bat ere isolatuta geratzeko arriskuan egon ez dadin.

Datuek diote gehienek (% 93,49) sormenezko jarduerak egin dituztela konfinamendu-egoeran, hainbat gauzataraz jolastu direla (% 99,23), edo familian jarduerak egin dituztela (% 99,52). Halere, egoera honek haserre eta triste jarri dituela nabarmentzen dute. Datu kuantitatiboek erakusten dute haurrek lehen baino negar gehiago egin dutela (% 55,54), urduriago egon direla (% 70,17), maizago haserretu direla (% 74,66) eta tristeago egon direla (% 55,83).

Maila fisikoan, ehunekoak tarteko posizioetan kokatzen direla ikusten dugu; hala, gehienek ariketa fisiko pixka bat (% 55,66) edo dezente (% 35,28) egin dutela esaten dute, eta gutxi batzuk daude muturretan: % 6,98k dio jarduera fisiko asko egin duela, eta % 5,07k, berriz, ez duela batere egin.

Elikadura-ohiturei dagokienez, gehiengoaren iritziz, seme-alabek gehiago jan dute (% 64,72), eta bereziki, litxarrerria edo opil industrial gehiago jan dituzte (% 68,1).

Azkenik, teknologia berriei dagokienez, guraso eta legezko tutore gehienek uste dute (% 89,78) gehiegi erabili dituztela. Datu hori ere kezagarria da, teknologia berrien gehiegizko erabilerak izan ditzakeen ondorio negatiboak aintzat hartzen baditugu.

Haur askok, familiako kideekin egoteko denbora gehiago izateagatik pozik egon diren arren, beste senide batzuekin edo lagunekin egotearen falta sumatu dute. Bai eta kalera ateratzearen, korrika egitearen, naturarekin harremanetan egotearen, parkera joatearen eta lagunekin elkartzaren falta ere, eta hala adierazi da jaso ditugun marrazkietan.



## Ondorioak

Hortaz, emaitzak ikusita, ondorioztatu daiteke konfinamendu-egoera honek eragin negatiboa izan duela haurrengan hainbat mailatan: akademikoa, emozionala, fisikoa eta soziala. Hori dela eta, haurrak bizitzen ari diren errealitate berriei aurre egiteko neurriak ezarri behar dira, haien ongizatea zaintzeko. Era berean, zaugarriagoak diren haurrengan ere jarri beharko da arreta, eta beharrezkoak diren baliabideak jarri beharko dira martxan, krisi honek kalte nabarmenagoa egin baitie baliabide gutxiago dituzten horiei. Horretarako, funtsezkoa izango da ongizateari modu holistiko batean erreparatzea eta ez zentratzea soilik alderdi akademikoetan; hala, ekintzak bultzatu beharko dira arlo publikoetatik, haurren premia sozialei, fisikoei eta psikikoei erantzuteko. Agerikoa da orain familiek dutela kontaktu zuzena haurrekin, baina horregatik ez dugu pentsatu behar gizarte edo erakunde publiko gisa zaintzaren foku guztia haiengan jarri behar dugunik, eta haurren ongizatea bermatu beharko da, haien ahotsak ere erdigunean jarriz eta ez isilaraziz.

**Konfinamendu-egoerak emozio anbibalenteak sortu dizkie haurrei: pozik egon dira, neurri batean, familian denbora gehiago pasa dutelako eta, era berean, bakarrik ere sentitu dira lagunena faltagatik.**

# EKARPENAK 2

HAUR-ESKOLA UNIBERTSITATEAN

## Hezkuntza goiztiarreko laborategia ireki dute Bilboko Hezkuntza Fakultatean

0-3 etaparen garrantzia onartu ez ezik, urrats bat gehiago egin dute Bilboko Hezkuntza Fakultatean: etapa horri zuzendutako laborategi bat ireki zuten martxoaren 4an, eta hezkuntza goiztiarreko laborategia deitu diote. Haur Hezkuntzako gradua ikasten ari diren ikasleek haur-eskola baten itxura duen lekua izango dute unibertsitatean bertan.



Elena Herran, Cristina Uriarte, Nekane Balluerka eta Asier Romero Bilboko Hezkuntza Fakultateko hezkuntza goiztiarreko laborategiaren inaugurazio egunean martxoaren 4an.

**E**z da ohiko laborategia, ez dago tutuz eta probetaz hornitua, baizik eta sehaskaz, sukaldetxoaz, haur txikiak aldatzeko eta janzteko lekuz, mugikortasun-egituraz, jostailuz eta abarrez. Haur-eskola baten itxura duen laborategia da, ez da haur-eskola, ez baitago haurrik, panpinak baizik. Haur Hezkuntzako gradua ikasten ari diren ikasleak joango dira hara praktikak egitera, eta baita 0-3 urteko haurrekin lan egingo duten hezkuntzako beste titulazio batzuetakoak ere. Ohiko gelatik irten eta haur-eskola bat nolakoa den ikusteko aukera izango dute bertatik bertara, baita bizitzako lehen urteetako zaintza- eta heziketa-lanak nolakoak

diren zuzenean esperimendatzeko eta ikertzeko ere. Ikasle horiek ez ezik, laborategiko atea irekita edukiko dituzte adin-tarte horretan lan egiten duten eta irakaskuntza-gaitasuna hobetu nahi duten profesionalek ere, etengabeko prestakuntzarako.

Elena Herran laborategiaren koordinatzaileak azaldu zuenez, “gure umerik gabeko laborategiaren helburua Haur Hezkuntzako graduko ikasleei ahalik eta eremurik errealean eskaintzea da. Espazio horretan, beren burua kokatzeko, 0-3 urteko umeen beharrianak ezagutzeko eta profesionalki kokatzen hasteko aukera izango dute, benetako haur-eskola batean egotea tokatuko baitzaie denbora gutxi barru”.

### Laborategiko jarduna

Laborategia bi eremutan banatuta dago. Batetik, jarduera autonomorako eta jolas librerako gunea, haurtxoen gaitasun autonomoa garatzeko eta garapen motor eta kognitiborako balio duena. Eta, bestetik, zainketen gunea dago, non eguneroko bizitzako ohiturak eta autonomian egindako aurrerapausoak ikusten diren: elikadura, pixoihal-aldaketa, esfinterren kontrola, loa, janzteia, higiena eta abar. “Umerik gabe ikusiko dute hori dena, baina balizko ume horren adimenaz, gustuez, pertsonalitateaz eta abarrez ohartzen lagunduko die”, azaldu zuen Herranek. “0-3 urteko umeen beharrianak ezagutuko dituzte, zein material eta espazio diren egokiak



eta horien segurtasuna nola neur daitekeen. Horrekin batera, erabiltzen diren materialen, ekipamenduen eta objektuen egokitasunaz eta potentzialtasunaz jabetuko dira, beharri-zanen arabera aldaketak egin behar direla ohartuko dira, eta egunerokoari garrantzia ematen ere ikasiko dute, 0-3 urteko umeekin egunerokotasuna baita asmatu behar dena”.

Ume txikien egunerokotasunera hurbiltzeko baliatuko dute laborategia, baina ez fisikoki bakarrik, baita denboran zehar ere: “Haurrak, lau hilabeterekin, hezitzailearen altzoan hartzen ditu lehen biberoiak, baina, azkenerako, gelakideekin mahaian eserita bazkalduko du, era sozializatu, heldu eta autonomo batean”.

Lanketa horrek guztiak haurra erdigunean jartzea dakar Herranen hitzetan: “Elkarren arteko harremana beharrezkoa zaigu gizakioi, genetikoki sozialak gara, eta sistema familiar oinarritzen da harreman-sare hori eraikitzeko. Ikerketek diotenez, ordea, haur-eskoletan eratu daitezke harreman-sare horiek, baina, horretarako, hainbat baldintza bete behar dira. Haurra pertsonatzat hartu behar da, zereginaren erdi-erdian eta testuinguruaren baldintza fisikoak zein gizatiarrak haren arabera egokitu: hezitzaile egonkorra, elikadura, osasuna, garbiketa, mugimendua, munda arakatzeko aukera, eta jarduera autonomorako esparruak betebeharrak desberdinetara egokitutako material, proiektu eta abarrek hornituta. Emaizta ez da familia izango, baina bai eremu ezagun, egonkor, argi eta errespetuzkoa. Hortxe dago kalitatezko hezkuntza, ez dago beste inon. Eta baita, arreta goiztiarraren ikuspegitik, lehen mailako prebentzioa ere. Hortxe, ez beste inon”.


### Fakultatearen apustua

Laborategia ireki izanak agerian utzi du Bilboko Hezkuntza Fakultateak eskola-garai honi ematen dion garrantzia, Asier Romero fakultateko dekanok azaldu zuenez, “lehen urteak funtsezkoak baitira norbanako gisa prestatzeko”. *Laborategi* edo *ikerketa* kontzeptuak Haur Hezkuntzarekin ez direla lotzen aipatu du, “eta haurrekin ere ez, ez gaude horretara ohituta



oraindik. Fisika, Kimika edo Medikuntzarekin lotzen dugu zientzia, ez Haur Hezkuntzarekin, ez zaigu iruditzen Haur Hezkuntza zientzia denik. Baina zer da zientzia? Modu objektibo eta sistematikoan behaketaz eta arrazoimenez osatzen den jakintza dela dio hiztegiak. Eta gure hezkuntza goiztiarreko laborategian ez al da, bada, objektiboki ikertuko autonomiaren kontzeptua edo haurren garapen kognitiboaren behaketa arrazoitua?”, gaineratu zuen Romerok.

Bilboko Hezkuntza Fakultatean argi daukate Haur Hezkuntza indartzen jarraitu nahi dutela neurri jakinen bidez; laborategia da horietako bat, eta hezkuntza goiztiarra landuko duten ikasgaiak bestea. Lanketa horretaz gain, Romerok argi ikusten du unibertsitatearen eta haur-eskolen zein ikastetxeen artean sinergiak lortu behar direla. “Bien arteko harrema-



nak ezin ditugu praktiken kudeaketara mugatu, beste jarduera batzuetara ere hedatu behar ditugu: ikerketara, batean zein bestean egonaldiak egitera, proiektu partekatuetara eta abar”. Bide horretan lan egiteko erabaki irmoa dute.

# EKARPENAK 3

'XARE' JARDUNALDIAK

## Euskarazko kultura digitalaren gunea

Nerabeen artean IKTen alorrean eta, oro har, kultura digitalaren esparruan euskararen erabilera sustatu nahi duen egitasmoa da *Xare*. Iruñean *Sarea Euskaraz* izenburupean, eta Durangon, Gasteizen eta Donostian *Xare* izenarekin, 1.700 ikasle baino gehiago izan ziren teknologia gaietan euskaraz trebatzen COVID-19aren krisiaren aurretik. Orain, online irakaskuntza, telelana eta abar ekarri dituen egoera dela-eta, are eta garrantzi gehiago hartu du *Xare* egitasmoak.

**K**opuruei begiratuta, 1.700 ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten Durangon, Gasteizen eta Donostian *Xare* izenez eta Iruñean *Sarea Euskaraz* izenburupean antolatutako jardunaldietan; nerabeen artean euskarazko kultura digitala sustatu eta ezagutaraztea dute helburu jardunaldiok. Horrez gain, softwareak euskaratzea bultzatu nahi dute edota euskarazko IKTen sektorea ikusaraztea eta balioestea; horretarako, formatua



aldatzen ari dira urtetik urtera, hobetu nahian.

Eragin taldeko Iñigo Martinez ordezkaria buru-belarri ibili da hastapenetik jardunaldien antolaketan, eta, kontatu duenez, hizkuntzaren aldetik IKTen erabilerak duen garrantzia estrategikoa ikusita, “pozgarria” da 1.700 ikasletik gora “euskarazko kultura digitalarekin kutsatzea: euskaraz ere teknologia sortzea, erabiltzea eta gozatzea posible dela entzun, ikusi eta frogatzea”.

2012. urtean dute abiapuntua *Xare* Jardunaldiek, Martinezek dioenez, Donostiako Kursaalera areto batean bi eguneko jaialdi bat antolatu zuen Eraginek, Donostiako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Orduko hartan, jaialdia bere horretan geratu zen, baina, gerora, Nafarroara hedatu zen ekimena. Izan ere,

Euskarabidea erakundearekin batera, Iruñean antolatu zituzten jardunaldiak duela bi urte, formatua aldatuta eta *Sarea Euskaraz* izenarekin. Nerabeei zuzendu zitzaizkien Iruñeko jardunaldiak, eta ikastetxeen bidez egin zen izen-ematea. Nafarroako esperientzia haren ostean, Euskal Herriko beste zenbait hiritara jauzi egin du egitasmoak, eta ikasturte honetan, lehen aldiz egin dituzte Euskarazko Kultura Digitalaren Jaudunaldiak Durangon, Gasteizen eta Donostian, *Xare* izenarekin.

Aipatutako lau hirietako jardunaldietako ikasleen parte-hartzeari buruzko datuak zenbatuta, 1.700 ikasle baino gehiago izan ziren jardunaldietan, antolatzaileen esanetan. Iñigo Martinezentzat, “oso zifra potoloak” dira haientzat, formatu honetan lan egiten hasi zirenetik bi urte baino ez direlako pasatu, eta dagoeneko kopu-

ru horretara iristea “pozgarria” zaie. Kopuru horrek, hala ere, beste zifra bat ezkutuzten duela dio Martinezek: “Izan ere, zenbaki handiagoa izan zitekeen errealitatean, kasu gehienetan edukiera gainditu egin zelako; kanpoan gelditu ziren ikasle dezente. Gai hauek lantzeko interesa bada-goela erakusten digute datuek, eta datorren urtera begira, saiatuko gara edukiera handitzen, ikasle gehiagok parte hartu ahal izateko”.

### Hiru aretotan banatuta

Hainbat ikastetxetako ikasleek hartu zuten parte jardunaldietan, Batxilergo 1. mailakoek, zehazki. Hiru aretotan, era askotako hitzaldi, lantegi eta aurkezpenak izan zituzten ikasleek, euren gozatarrari. Info Aretoan, esaterako, euskarazko kultura digitalaren esparruan aitzindari izan diren eta egun lantzen ari diren bost proiekturen inguruko aurkezpen labur bana izan zuten entzungai ikasleek. Besteak beste, *Puntu Eus* Fundazioaren *Interneten ere lehen hitza euskaraz* egitasmoa; ahotsak.eus atariko *Gazte gara Gazte* dinamika; Booktegiren *Guztion liburuak, guztiontzat*; Euskal Wikilarien Elkartearen eskutik, *Nola kopiatu Wikipedia Wikipedia kopiatu gabe?* mintegia; eta Librezaile elkartearen eskutik, *Common Voice* proiektua.

Ikas Aretoan, berriz, zortzi lantegi praktiko izan zituzten aukeran parte-hartzaileek. DJ Makalaren eskutik, musika sortu, nahastu eta zabaltzeko aplikazioak, bideo-mappingean trebatzeko saioak, 3D inprimagailuak erabiltzeko lantegiak, edota errealitate birtualaren mundura hurbiltzeko esperientziak, besteak beste. Inigo Martinezek hauxe azaldu du: “Lantegietan aurkeztu dituzten lanabes horiei dagokionez, egia da gauza asko ez daudela euskaraz, baina kontuan izan behar da ez ditugula gazteleraz ere aurkituko, seguru aski: askotan, oso gauza teknikoetara jotzen dugunean, ingelesez bakarrik aurkitzen ditugu lanabesak. Guk naturaltasunez bizi dugu hori. Baina garrantzitsua iruditzen zaigu lanabes horietan trebatzeko azalpenak euskaraz ematea gatzetxoei, eta zer esanik ez, lanabes horrekin egindako emaitzak testua



edota hizkuntza baldin badu.”

Era Aretoa izan zen aurtengo berrietasuna eta interesgune nagusia, antolatzaileen arabera. Teknologia berriei egiten den erabileraren inguruan hausnartzera bideratutako gunea izan zen Era. Antolatzaileen esanetan, “informazioaren eta komunikazioaren teknologiek gero eta presentzia handiagoa dute gure egunerokoan. Horregatik, teknologia horiez egiten dugun erabileraren inguruan hausnartzeko bi hitzaldi interaktibok osatu zuten gune honetako eskaintza. Alde batetik, Gipuzkoako Software Askea Elkarteak kide den Maider Likonak pribatutasunak sarean dituen ezauzgarriak argitu zituen; ikasleengan harridura sortu zuen kasu praktiko eta erreal baten bidez wifi ireki batean zer-nolako erregistroak sortzen diren aztertzeak. Bigarren hitzaldia Emaize sexologia-elkarteko Ane Ortizen eskutik jaso zuten ikasleek. *Harremanak 3.0: like bat eman* izenburuarekin, esparru digitaleko harreman afektibo-sexualen eredia aztertzen eta sedukzio eta ligatzea aro digitalean nola gertatzen ari den lantzen aritu ziren.

### Emakumeak eta teknologia hizpide Donostian

Donostiako jardunaldien kasuan, aparteko hitzaldi bat joratu zuten ikasleekin. Kasu horretan, EHUren Informatika Fakultatearekin elkarlanean, honako gai hau landu zuten areto berean: teknologia eta emakumeak. “Fakultate horretan, azkeneko

urteetan emakumeen izen-emateek modu esanguratsuan behera egin dutela antzeman dute. Joera hori, gainera, ez da zehazki fakultate horretan gertatu den zerbaite, baizik eta nahiko arazo orokorra dela uste dute. Horregatik, emakumeek teknologiagaitan duten presentziaren inguruan lan egiteko asmoz, Donostiako egitaraua moldatu egin zuten, eta modu horretan landu zuten teknologiaren eta generoaren gaia, EHUko irakasle Olatz Arbelaitzek zuzendu zuen saioa, eta, hark azpimarratu zuenez, “emakumeak unibertso digitalean aktiboki aritzea ezinbestekoa da, teknologia bidezkoa izan dadin.”

Aurrera begira, euskarazko kultura digitalaren inguruan nerabeei zuzentzen zaizkien jardunaldiak hobetzen jarraitzeko asmoa dutela dio Eraginek kideak. Jardunaldiez gain, publiko zabalarri zuzendutako ikastaroak ere antolatzen dihardute han eta hemen. “Une honetan, hausnarketa-aldi txiki batean gaude. Harremanetan jarriko gara jardunaldietan parte hartu zuten ikastetxeekin, ikusteko nola hobetu dezakegun egitasmoa hurrengo urteei begira”. Aurrera begira, ikasle gehiagorengana iristea dute helburu: “Bilbora iristea ere gustatuko litzaiguke, eta saiatuko gara Iparraldera ere iristen, nahiz eta badakigun finantzaketa lortzea ez dela erraza izango kasu horretan”. Harremanetarako, helbide bat helarazi dute. Egitasmoan parte hartzeko interesa duenak hauxe du harremanetarako bidea: [info@xare.eus](mailto:info@xare.eus).

# GALDEIDAZU

## SEI HILABETEZ ESKOLARA JOAN GABE, HAINBAT IKASLEK EUSKARAREKIN EZ DUTE BATERE HARREMANIK IZAN. ZER EGIN DAITEKE IRAILEAN?

**D**enok dugu argi ikasturte hasiera berrian ikastetxeetan euskararen erabileraren gaia erronka handia izango dela. Hainbat ikastetxeren testuinguruetan, martxotik irailera, ikasleek euskara entzuteko eta erabiltzeko aukera gutxi izan dute: gurasoek ez dakitelako, inguruan presentzia txikia duelako, eskura egon daitezkeen baliabideak ez direlako erabiltzen (telebista, musika...) eta abar.

Horren eragina edo ondorioa hainbat modutara agertu daiteke. Besteak beste:

- Lortutako gaitasunean atzera egitea, bereziki erabiltzeko gaitasunari dagokionez.
- Kideekin euskaraz aritzeko zailtasun handiagoa izatea, eskolaz kanpo beraien arteko harremanak erdaraz finkatu direlako.
- Euskara erabiltzeko gogo gutxi izatea eta jarreretan eragina izatea, ahalegin bat eskatzen dielako eta denbora tarte luze batean erabili gabe egon direlako.

Ikasturte hasiera honetan ikasleek egokitzen bat egin beharko dute etenaldi luzearen eta egoera honetan agertutako arau berrien ondorioz. Egokitzen horretan emozioak eta harremanak landu beharko dira, eta horrekin guztiarekin lotuta euskara-



ren erabileraren eta euskararekiko jarreraren gaia zaintzea ere oinarritzkoa izango da. Zailtasunak zailtasun, egoera berriak hizkuntza ohitura aldaketak sortzeko aukera ere badira; beraz, *euskaraz egin* esatetik *euskaraz egiten laguntzera* pasatzeko aukera baten aurrean aurki gaitzke.

Erronka horri begirako proposamen batzuk egiten dizkizuegu. Hainbat irakaslerentzat ezagunak dira, baina ikasturte hasiera honetan ondo

### IÑAKI EIZMENDI

#### Euskararen erabileran eta transmisioan aditua



### ARRATE GISASOLA

#### Euskararen erabileran eta transmisioan aditua



zaintzea eta ahalik eta arlo gehienak garrantzitsua izango da.

### **Irakasle guztiok koordinatuta eta antzeko jokabidearekin: izan gaitzen hezitzaile berritsuak**

Banakoekin elkarriketa asko sortzea eta beraien arteko elkarriketetan eragitea proposatzen dizuegu. Erabilera-errekiko jarrera oso aktiboa izan behar genuke irakasleok.

Komeni da ikasleek jakitea euskara erabiltzea nahi dugula eta ahalegina eskatuko diegula. Euskara ondo ikas- teko ezinbestekoa da erabiltzea eta horretan laguntzea gure ardura denez ahalegin hori eskatuko diegu. Me- zuak eta tonua ondo zaintzea komeni da, baina ahalegin eskaerak esplizitua eta argia izan behar du.

Horrekin batera ikasle eta irakasleen arteko harremanak sendotuz lagun- tza eskaini diezaiekegu: banakoekin elkarriketa asko sortu eta beraien arteko elkarriketetan eragin.

- Irakasleekin duten harremanak izan behar luke lehendabiziko arnagunea. Egoera formalak eta ez formalak erabil ditzakegu elkarriketak sortzeko.
- Ikasgelan edo ikasgelatik kanpo beraien elkarriketetan parte hartzea garrantzitsua da. Gure jarrera aktiboa bada ziur hainbat egoera sortuko direla elkarriketetan eragiteko. Horretan ari garenean argi adierazi euskaraz egitea nahi dugula eta laguntzeko prest gaudela.

Oinarrizko estrategia da. Beste proposamenen eragina askoz handiagoa izango da *hezitzaile berritsuen* jarrera hartzen badugu eta irakasle guztiok berdintsu jokatzeko badugu.

Guraso berritsuei buruzko azalpen eta adibide gehiago ondoko gida honetan aurkitu ditzakezue: [http://www.emangiltza.eus/e-liburuak/Gu\\_Bai\\_Hezitzaile\\_Berritsuak/mobile/index.html](http://www.emangiltza.eus/e-liburuak/Gu_Bai_Hezitzaile_Berritsuak/mobile/index.html)

### **Eskaini gune edo jarduera babestuak**

Euskara asko erabiltzen lagundu nahi diegunez, gune babestuak eskaintzeak hori erraztuko digu. Jarduera ludikoak izan daitezke edo arloarekin lotutakoak. Baina guztiak ezaugarri komun bat dute: jarduera aurrera

eramateko euskara erabiltzea ezin- bestekoa izatea.

Adibidez, “Arkatzia erdira” dinami- ka kooperatiboan, ezer idatzi aurretik ikasleen artean zer idatziko duten adostu behar dute. Egoera horretan hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Edo Haur Hezkuntzan, adibidez, txokoei begirako jarduerak proposa- tzen badizkiegu, horietan hizkuntza errutina batzuk txertatzen baditugu eta zenbait saiotan beraien arituz horiek barneratzen laguntzen badie- gu, askoz errazagoa izango da jardue- ra horietan euskara finkatzea.

Kontuan izan:

- Hainbat ikasleri elkarri euskaraz egitea zaila baino gehiago arra- roa egiten zaie. Beraien arteko harremana erdaraz finkatuta dago.
- Eskola-orduetan euskaraz egiteko eskatzea ez da nahikoa, eta taldetxoetan hizketan ari- tzeke egoerak sortzeak ere ez du bermatzen euskaraz aritzea. Jardueraren ezaugarrietan bertan sartzea komeni zaigu euskaraz aritzearen helburua eta beharra.
- Zenbat eta arlo gehiagotan eta maiztasun handiagoarekin egin, orduan eta errazago eta eroso- go egingo dute. Aldiz, zenbat eta gutxiago egin, orduan eta zailagoa izango da beraien artean euskaraz egitea.

Honetan ere irakasleen jokabidea funtsezkoa da:

- *Hezitzaile berritsuak* proposatzen dizuegu. Jardueran ari diren tar- tea baliatu behar genuke taldez talde ibiltzeko, elkarriketak sortzeko, laguntzeko, ahalegina eskatzeko eta errefortzu positi- boak emateko.

Ezaugarri horiek dituzten hainbat jarduera aurkitu ditzakezue ondoko gune honetan: [www.ebete.eus/hezi- tzaile-berritsuak](http://www.ebete.eus/hezi-tzaile-berritsuak)

### **Ahokoari eta girotze lanari inoiz baino leku handiagoa eman, bereziki lehen asteetan**

Iraileko lehen asteetan ikastetxea euskararentzat arnagune bat izan dadin ahalegin berezia egin dezake- gu. Ohiko dinamikari baino gehiago, talde izaera lantzeari eta etenaldi

## **Irailean euskaraz egin esatetik euskaraz egiten laguntzera pasatzeko aukera baten aurrean aurki gaitzke hezitzaile berritsu bihurtuz.**

luzearen ondoren eskolako dinami- kara egokitzeari helduko zaio hainbat ikastetxetan, eta hor ahazkotasuna eta euskararen erabilera zaindu ditzake- gu. Egokitzapen horretan euskararen erabilerak ardatz nagusietako bat izan behar du.

Besteak beste:

- Hizkuntza-jolasak antolatu ditzakegu, hizkuntza-errutinak dituzten dinamikak, ginkanak edo bestelakoak.
- Abestu eta euskarazko musika jarri dezakegu.
- Mahai-inguruak antolatu ditza- kegu eta horietan euskaraz egin dezaten neurri batzuk hartu: hitza hartzeko euskarri bat elkarri pasa beharra, moderatzaileak jartzea eta abar.
- Atsedentarteak girotu ditzakegu eta jarduera dinamizatuak anto- latu: hizkuntza errutinak dituzten kirol-jolasak, mahai-jokoak eta abar.
- ...

Modu honetako hizkuntza-murgil- tze ahaleginak hainbat ikastetxetan egiten dira lehendik ere. Baina egiten ez diren lekuetan ere ideiak eta erreferentziak aurkitzea erraza da: zer egiten da euskararen astean? Zer Korrikaren edo Euskaraldiaren in- guruan? Horietatik baliagarriak zein diren ikusi eta iraileko lehen asteetan egiteko egokitu daitezke.

### **Motibazioa oinarri duten jarduerak ere lagungarriak izan daitezke**

Motibazioa oinarri duten jardueren bidez bi helburu lor daitezke:

- Ikasleek denbora tarte batean euskara gehiago erabiltzeko ahalegin kontzientea egitea eta gustura aritzea.
- Ikasleekin hizkuntzak ikasteari buruz eta euskararen erabilera buruz hausnartzea.

Ikasturte hasiera une oso egokia izan daiteke euskara gehiago erabiltzera begirako jarduerak sortzeko: botila urez betetzea, sugea, Argitxo... Baina oso argi izan:

- Jarduera horiekin ez ditugu hizkuntza-ohiturak aldatuko.
- Ongi erabiltzen direnean ondorio oso positiboak izan ditzakete, bereziki jarreretan.

Irakasle taldea *hezitzaile berritsu* moduan ari bada, ahozkoa lantzeko egoera babestuak sortzen badira eta girotze lana egiten ari bagara, modu honetako jarduerak txertatzea oso baliagarria izan daiteke: euskara gehiago erabiltzeko benetako ahalegina egiten badute eta horri errefortzu positiboak ematen badizkiogu, erabilerari begirako giro egoki bat sortzen lagunduko digu ikastetxean.

Horretaz gain, hausnarketak ere egin ditzakegu ikasleekin: eleaniztasunari buruz, hizkuntzekin dugun harremanari buruz, euskararen erabilerari buruz eta abar. Horri begirako jarduera asko sortu dira azken urteetan. Adibidez: Tribuaren Berbak ETBko programan oinarritutako sekuentzia didaktikoak <http://klasikoa.eimakatalogoa.eus/20962/tribuaren-berbak/lan-koadernoak.html>

## Errefortzu-programak eskaintzeko aukera izanez gero, askoz hobe.

Etxealdian eta udako opor garaian zenbait ikastetxe eta udalerritan euskara errefortzu-programak eskaini dira. Online bidezko programak izan dira eta haur eta nerabeekin, gehiengotan taldetxoetan, mintzapraktika saio ludikoak egin dira. Modu horretan euskara erabiltzeko aukera izan dute bestela edukiko ez zuten hainbatek.

Iraila ere oso garai egokia izan daiteke modu horretako programak eskaintzeko:

- Eskolak goizez soilik izaten dira eta ez dute eskola orduz kanpoko jarduerarik. Beraz, arratsaldetan eta asteen bi aldiz edo, mintzapraktika saioak egin daitezke.
- Eskolara joateko aukera baldin badute, online bidez programa osagarri bat eskaintzea aproposa izan daiteke. Etxealdi garaian hori zalantzan jarri izan da lehendik ere guztia online egiten ari

zirelako, baina irailean ez bada horrelako egoerarik ematen, une egokia izan daiteke.

Etxealdiaren eta oporren ondoren euskarara gerturatzeko eta erabiltzeko gaitasuna berreskuratzeko tresna oso ona izan daiteke. Modu honetako jarduera bat antolatu nahi bada, herriko eragileekin elkarlana bilatzea izan daiteke bide bat.

## Familiei ere azaldu beraien ardura eta eskaini baliabideak

Irakasle on ardura da ikasleei euskara gaitasun on bat garatzen laguntzea, baina ez da soilik irakasle on ardura: gizarte osoaren ardura ere bada, baina bereziki familien ardura. Beraiei komeni zaie seme-alabek euskara ere ondo bereganatzea: ikasketak aurrera ondo eramateko beharrezkoa da eta gizarteratze bidean seme-alabei abantaila asko eskaintzen dizkie (sozialak, kulturalak, laboralak...).

Guraso askok hori oso argi dute, baina agian oraindik kostatzen zaigu hori argi azaltzea. Beraz, gurasoei ardura hori har dezaten ere eskatzea proposatzen dizuegu, baina hori egin dezaten laguntza ere eskaini behar genieke: familiek euskararekiko jarrera aktiboa izan dezaten nahi dugu, baina hori lortzera begira mezu egokiak ematea lortu behar dugu bai eleaniztasunari buruz, bai euskaraz ikasteari buruz eta baita euskararen erabilerari buruz ere. Are gehiago, norabide horretan lagundu diezaguten tresnak emango bagenizkie, askoz hobe.

Bide horretan guraso elkarteek laguntza izan dezakegu eta ikastetxe batzuetan gurasoen Euskara Batzordeen laguntza ere bai. Baina horien babesa ez dugunean ere, gutxienez guraso bilerak erabil ditzakegu hori transmititzeko. Horri begira ondorengo gune honetan hainbat proposamen aurkitu ditzakezue: [www.guraso-berritsuak.eus](http://www.guraso-berritsuak.eus)

## Eskola orduz kanpoko jardueretan, euskarazkoak sustatu

Ikastetxeetan garrantzia handia eman behar litzaieke eskola-orduz kanpoko jarduerari: bai ikastetxeetatik antolatzen direnei baina baita udal, elkarte edo klubek antolatzen dituztenei ere.

Jarduera horiek taldeka egiten dira, epe ertain edo luzeak izaten dira eta dinamizatuak dira. Euskara zaindu eta sustatzen denean, eragin handia izan dezake parte-hartzaileen hizkuntzagaitasun, jarrera eta ohiturei begira. Baina, era berean, jarduera horietan ez denean euskara zaintzen, eragin handia izaten du beste norabidean.

Norabidea eskola-orduz kanpoko jarduerak ere D ereduak izatea da:

- Zaindu eskolatik eskaintzen diren jardueretan euskara zaintzen dela eta erabilerari sustatzen dela.
- Eskolatik kanpoko jarduerari begira euskarazkoetan izen-ematea sustatu: familiei horren garrantzia adieraziz eta inguruan zein aukera dituzten helaraziz.
- Udal, elkarte eta klubei elkarlana eskaini eta ardura eskatu.

## Ikasturte hasierarekin batera, astindu dezagun euskararen erabilerari

Hasiera hasieratik eta ikasturte osoan zehar, oinarritzko bi estrategia antolatu eta zaindu:

1. Irakasle guztiok koordinatuta eta antzeko jokabidearekin: izan gaitzean *hezitzaile berritsuak*
2. Egokitze prozesuan gune babestuak eskaini

Ikasturte hasieran eta egokitzapen prozesuari laguntzeko, jarduera bereziak eskaini:

3. Ahozkoari inoiz baino leku handiagoa eman, bereziki lehen asteetan.
4. Motibazio jarduerak ere lagungarriak izan daitezke.
5. Errefortzu-programak eskaintzeko aukera izanez gero, askoz hobe.

Gure aliatu izan daitezkeenei laguntza eta ardura eskatu:

6. Familiei ere azaldu beraien ardura eta baliabideak eskaini.
7. Eskola-orduz kanpoko jardueretan, euskarazkoak sustatu.

# ARGITALPENAK




## ANIMALIEN GAUA

Rene Mettler

### TTARTTALO

Ilunabarretik egunsentiraino, animalien bizimodu sekretua ezagutuko dugu, edertasun handiko irudien eta istorio zirraragarrien bitartez. Berrogei espezie baino gehiago ikus daitezke beren inguru naturalean, ilargiaren magiaren argitan, hurbil-hurbiletik, eta horien guztien deskribapenak ditugu liburu amaieran.




## ZAKARRUKO

Anjel Lertxundi - Antton Olariaga

### EREIN

Inork ez du bere izenik gogoratzen, Zakarruko deitzen diote denek. Harroa omen da, egoskorra, beti kopetilun dago: petralduta bizi da bere buruarekin eta munduarekin. Baina Zakarruko benetan ote da hain pertsona zakarra? 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzako Pikotxean saileko liburua da Lertxundirena.



## IZURRIA! (PANDEMIA)

Slavoj Žižek

### TXALAPARTA

Slavoj Žižek esloveniar filosofo zirikatzailea koronabirusaren pandemiari begira jarri da bere azken lanean, eta saiakera interesgarri ondu du gaurkotasuna duen krisiaren gainean. Žižekek krisiaren argazki kitzikatzaile eta zorrotza ematen du, bai eta irakurketa itxaropentsu bat ere. Danele Sarriugartek euskaratu du.



## KORALAREN DISTIRA

Cristina Etxabe - Maite Marquez

### PAMIELA-KALANDRAKA

Uda heldu zen, eta, urtero bezala, Helene herrira joan zen. Koralezko uharrri eder bat zegoen eta urpean igeri egitea zen Heleneri gehien gustatzen zitzaiona. Urte horretan, ordea, gogoratzen zituen koralek guztiz galdua zuten kolorea. Istorio honek kutsadurak, plastikoez eta klima-aldaketak ozeanoetan duten eraginari buruz hausnartzen laguntzen du.




## GEZURREN HABIA

Jabi Elortegi

### ELKAR

Bilbon. Asteburu bateko goizaldean. Alaba nerabea etxean agertzen ez dela-eta, Ertzaintzari deitu diote gurasoek. Agente pare bat ohikoa dirudien kasua ikertzen hasiko da. Alabaina, galdeketa sakontzen duten neurrian mataza gero eta korapilatuago ageri da; orduak aurrera egin ahala gezurra gezurraren gain pilatzen dela ikusiko dute.



## PENSAMENDUAREN HISTORIA EUSKAL HERRIAN

Joxe Azurmendi

### JAKIN- EHU


Euskal Herriko pentsamenduaren eta eskolen historia arakatzeko urteak eman ditu Joxe Azurmendi pentsalari zegasarrak, han-hemen argitaratutakoa batzen eta aztertzen, eta lan esker horren emaitza da EHUKo Joxe Azurmendi Katedraren eta Jakinen elkarlanari esker argitaratu berri den liburua.

# PROPOSAMENA

## Landarlan ingurumen-elkartea

Natura ezagutu,  
natura maitatu eta zaintzeko

Landarlan ingurumen-  
elkartek  
*naturanhezten.eus*  
web-orria sortu du, Haur  
Hezkuntzatik hasi eta  
Batxilergo edo Lanbide  
Heziketa arteko haur eta  
gazteei eta haien irakasleei  
naturaren hezkuntzan  
sakontzeko aukera  
emateko.



**Z**erbait zaintzeko lehendabi-  
zi ezagutu egin behar da”;  
printzipio horretatik abiatu da  
Landarlan ingurumen-elkartea  
*www.naturanhezten.eus* web-orria  
sortzeko. “Gure gizartean eta etor-  
kizunean izango dugun erronka  
handietako bat gure natura-ondarea  
babestu eta hobetzea izango da,  
baina, gaur egun dauzkagun ezagutza  
eta pertzepzioekin, ezin gara helburu  
horretara iritsi”. Horren ondorioz,  
Landarlan elkarteko kide Garazi Auz-  
mendik azaldu duenez, oinarrietara  
jotzea erabaki dute, “natura ezagutuz  
maitatu eta maitatuz babesteko”:

haurrei eta nerabeei, eta orobat ikasle  
eta herritar guztiei, natura ezaguta-  
razteko eta sentsibilizatzeko bali-  
abideak eskaini nahi dizkiete *www.*  
*naturanhezten.eus* proposamen didak-  
tikoan. Ezagutza eta sentsibilizazioa  
dira, hain zuzen ere, *Naturanhezten*  
proiektuaren lehen helburuak, eta  
bigarren xedea naturaz naturan bertan  
gozatzea da: “Liburuak eta beste  
baliabide batzuk oso aberasgarriak  
izan daitezke natura ezagutzeko,  
baina beharrezkoa iruditzen zaigu  
naturarekin zuzeneko harremana eta  
lotura berreskuratzea; kanpora irteten  
garenean eta, zer esanik ez, umeak

eta gazteak irteten direnean, ukituz,  
esperimentatuz, usainduz, hotsak  
entzunez jasotzen dugu natura, eta li-  
buruetatik eta ikastetxe barruan ia-ia  
lortu ezin daitekeena da hori”.

Natura berez hezitzailea dela nabar-  
mendu du Auzmendik, eta ikuspuntu  
horretatik garatu dute elkartean  
proposamen didaktikoa. “Naturak  
lagundu egiten dio pertsonari ikas-  
kuntza-prozesuan, bai maila tekni-  
koan eta baita maila pertsonalean  
ere. Esate baterako, erlatibizatzen  
ikasteko aukera ematen du, oreka  
bilatzen laguntzen du... Naturak, bere  
prozesu eta gertaeren bitartez, gauza



asko erakusten ditu, hainbat kontzeptu zentzumenen bidez hautemanez barneratzen baitira”. Auzmendiren arabera, naturak bizitza osasuntsu, solidario eta bidezko baten oinarriak finkatzen laguntzen du. “Gizarte honek behar dituen balioak dira, eta landareei eta animaliei begiratuz, gure oreka, gure bizitza eta gizartearen ongizatea aberasten luke”.

Arazo-egoerak proposatzen ditu web-orriak baliabide metodologiko gisa, ikasleek talde-lanean ebatzi beharko dituztenak. Hezkuntzametodologia ez-gidatuaren aldeko apustua egin dute, ikaslea bere ikasketa-prozesuaren protagonista bihurtu dadin, eta irakaslea gidari gisa kokatzen dute web-orriko baliabideek, azalpenak ematen dituen izan beharrean. “Ikasleak ikas dezala bere kasa, esperimenta dezala, lagunekin ikas dezala, eta irakasleak lagundu diezaiola gidari gisa”.

### Egoerak eta erronkak oinarri


Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergo edo Lanbide Heziketa arteko haur eta gazteei zuzenduriko egoerak proposatzen dituzte lau mailatan, eta ingurumen-hezkuntzan sakontzearekin batera, beste hainbat alor lantzen dituzte zeharka, hala nola natura-zientziak, gizarte-zientziak, gorputz-hezkuntza, euskara, biologia, geologia, arteak eta beste hainbat. Proposamen bakoitzak curriculumei loturiko irakaskuntza-alorrak zein diren zehazten du, irakasleei laguntzeko asmoz, baina alor guztiak zeharka lantzen dira. “Hainbat gai uztartuko dituzten arazoen lanketa bultzatu dugu; arazo-egoera bat lantzeko, esate baterako, biologia, gizarte-zientziak eta alor artistikoko lanketaren bat egin beharko dute ikasleek... Eguneroko bizitza errealean aurki ditzaketen arazoen antzekoak aurkituko dituzte proposamenetan, ikaskuntza-alorrak horizontalki eta zeharka lantzen baitira”. Honela hasten da, esate baterako, DBHrako proposaturiko arazo-egoera bat: “Interneten lan bat egiten ari zinen bitartean, kartel erakusketa batekin topo egin duzu. Horietako asko ezagutzen dituzula iruditzen zaizu. Argazki-erakusketa- iruzkinetara jo duzunean, kartel

horien aldeko eta aurkako mezu ugari irakurri dituzu. Badirudi gai gatazka-tsua dela mugimendu ekologistena”.

Arazo-egoera ebatzen laguntzeko euskarri gisa, proposamen bakoitzak irakaslearentzako PDF dokumentu bat du erantsirik, non arazo-egoeraren testuingurua, ataza, helburuak eta jarraibideak zehazten diren. Gida-orriek gain, haur, nerabe eta gazteek gaietan sakondu ahal izateko, ikus-entzunezko dokumentazioa daukate eskura, Landarlanek berak aurrez egin zuen *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentalerako prestatutako materiala egokitu baita web-orrirako. Baliabide gehigarri horretan, hainbat elkarrizketa ikus eta entzun daitezke, hala nola Aranzadi zientzia-elkarteko adituei eginak, Joseba Garmendiari, Maialen Arrietari, Pako Etxeberriari edota Fermin Leizaolari; EHUKo geologia-taldekoei eginak, Arantza Aranbururi, Arturo Apraizi edota Iñaki Antiguedadi, adibidez, eta beste hamaika ingurumen-adituri egindakoak ere bai.

### Osasuna babesteko, naturara

Pandemiaren erdian sareratu du Landarlan elkarteak [www.naturanhezten.eus](http://www.naturanhezten.eus) web-orria, ikastetxeak itxita zeuden eta haurrek kalera irteteko muga estuak zituzten asteetan. Aurrea begira, eta irailean ikasturte berria nola hasiko den argitzeke dagoen honetan, Auzmendik uste du web-orri hau eskola-jarduera arruntean nahiz online ingurunean baliatu daitekeen tresna dela. “Arazo-egoerak taldean ebatzeko proposamena egiten du web-orriak, elkarrekin gehiago ikasten dela pentsatzen dugulako, eta, gaur egun plataforma digitalen bitartez talde-lana egin daitekeenez, pandemia-egoeran egonagatik ere, egingarriak ikusten ditugu proposamen didaktikoak”. Webak duen beste xedea ere egingarria iruditzen zaio, naturara irtetea eta haur, nerabe eta gazteek ingurune horretan esperimentatzea eta ikastea; are gehiago, pandemia-egoeran erraztasunak emango lituzkeen testuingurua dela dio Landarlaneko kideak: “Osasunari dagozkion segurtasun-neurriak eta distantziak bermatu ahal izateko erraztasunak ematen ditu naturak”.



[www.naturanhezten.eus](http://www.naturanhezten.eus)

### Egilea

Landarlan ingurumen-elkartea (Goierriin sortu zen ingurumen-elkartea bat da, 2003koa, baserritar, ekonomialari, erretiratu, idazkari, ingeniari, ingurumen-hezitzaile, industria-langile, irakasle, unibertsitate ikasle eta abarrek osatua). Web-orria Orklik, Kutxa Fundazioak eta Irizarrek babesten dute.

### Mailak

Haur Hezkuntzarako, Lehen Hezkuntzarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako eta Lanbide Heziketarako arazo-egoerak planteatzen dira.

### Web-orriaren egitura

Ikasleentzako arazo-egoerak proposatzen dituzte; ikaskuntza-arloak zeharka lantzeko pentsatuta daude, baina erreferentzia zuzena egiten diete curriculumeko ikaskuntza-arloei. Ikasleek arazo-egoerak taldeka ebatzea proposatzen da, eta, gidatzeko, irakaslearentzako txosten metodologiko bat osatu dute. Arazo-egoera bakoitzak ikus-entzunezko baliabide gehigarri bat dauka, *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentalerako prestatutako bideozatiekin osatua.

### Web-orriaren atalak

Arazo-egoerez eta bideoez gain, Ingurumen Hezkuntzarako baliabide interesgarriak biltzen ditu, bai eta mapak ere (oraingoz, Aralarkoak bakarrik; laster, gehiago).

# ATZEKO ATETIK



## TXORI BAKOITZAK BERE ABESTIA

OLATZ ZUGASTI ABESLARIA

**L**agun maiteok, aldizkari honetarako ikastola garaiko oroitze-ariketa bat egitea eskatu didazue, eta esan behar ezin hunkituago ekin diodala zeregin honi.

Hernaniko Urumea Ikastolan eman nituen nire lehen urteak, 13 bete arte. Urte politak izan ziren niretzat, zentzu askotan atera nion zukua garai hari, eta, gainera, beti pentsatu dut gaur egun naizena eta nire kantuetan adierazten dudan hori, hein handi batean, ikastolari zor diodala; izan ere, derrigorrezkotzat jotzen diren ikasgai guztiez gain, askoz ere zabalagoa eta zirraragarriagoa den zerbait jaso nuen ikastolan ume-umetatik: ikuspegi bat, kontzientzia bat, gure Euskal Herriaren taupadarekin eta arnasarekin bat nintzelako kontzientzia; olerkiak, kantuak, ipuinak, dantzak, euskara eta euskalkiak, esaera zaharrak eta horiek gordetzen duten jakinduria eta iruditeria, baita gure Nafarroako Erresumaren historiaren zertzelada batzuk ere..., horrek guztiak harilkatu zuen nire izatea.

Hori gutxi balitz bezala, Benito ere han ezagutu nuen, eta, urte batzuk

geroago berriro topo egin genuenetik, berarekin jarraitu dut nire bizitzako oihala brodatzen, garaiak aldatuz badoaz ere, beti etxeko sutondoa eta nondik natorren gogora ekarriko didan oihala, baita aurrera begira ere, egingo dudan guztiari nortasun batek begiratzen lagunduko didana.

Ikastolako garaietara itzuliz, gogoan dut gertakari bat, bost urteko “nexka haundia” nintzenekoa; zuzendariak etxean egokituta zuen ikasgelan geunden umeak, lurrean eserita, eta Maritxu Mariezkurrena zuzendaria bera sartu zen eta eskola ematen ari zitzaigun andereñoari, bere ahizpa Puriri, zerbait esan zion isilka. Ni haiei begira geratu nintzen, eta bat-batean biak niri begira ikusi nituen, eta eurengana joateko eskatu zidaten. Eta ez hori bakarrik, atearen beste aldean zegoen euren bizitokira sarrarazi ninduten! Ate hark bazuen orduan halako zera misteriotsu bat, haurrok ez baikinena inoiz hara sartzen. Nola, ote da euren etxea...? Baina ate hura zeharkatu eta, ezer kuxkuxeatzeko aukera izan baino lehen, olerkitxo bat ikasteko eskatu zidaten.

Igandean, Galarreta pilotalekua lepo beteta zegoen, ikastolak ikasturtearen amaierako jaialdia ospatzen baitzuen. Prestaketa-lanak egiten ari ginea konturatu ginen mikrofonoaren hanka ez zela nire altuerara jaisten; urduritasuna; jendea sartzen ari zen bitartean, Joxemari Aranalde apaiza nire ondoan; mikrofonoa ez bazen nigana iristen, nik igo behar haren-gana... Hala, aulki baten gainera igo ninduten.

Jendea bere lekuan eseri eta isildu zenean hasi nintzen etxean hainbat aldiz errepikatu nuen olerkia esaten: “Txori bakoitzak bere abestia, herri bakoitzak bere hizkera, euskaldunok euskaraz, guk ahal ditugun hizkuntza gehienak ikasiko ditugu, buruan hiru edo..., baina bihotzean bakarra: gurea”; eta jendearen txalo-zaparradaren ondoren eman genion hasiera jaialdiari.

Beste errezital bat ere agindua nuen, hanka moztu berria zuen eta jaialdi- ra etortzerik izan ez zuen aitonaaren aurrean egin beharko nuena, eta bai egin ere, haren malkoak ikusten nituen bitartean.

Jaso urtean lau zenbaki,  
20 €-ren truke

# Hazi Hezi

haziera eta heziketa  
aldizkaria



**Hazi Hezi** eta **hik hasi**  
familia eta eskola  
heziketari garrantzia ematen diogunon komunitatea

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

Hezkuntza-errealitate berrietara jauzi liburuxka berria

**SALGAI** [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

2019ko uztailan Hik Hasi Udako Topaketen 20. urteurrena ospatzeko egindako “Hezkuntza-errealitate berrietara jauzi” jardunaldi bereziaren ondoren datorren liburuxka



## Hezkuntzaren gaineko gogoetak COVID-19aren aurretik eta ondoren

**1\_** 10-20 urte barru nolako gizartea irudikatzen duzu? Zein izango dira premia nagusiak? Zeri erantzun beharko zaio?

**2\_** Horretarako, zer-nolako hezkuntza behar da? Nola hezi behar ditugu haur eta gazteak?

**3\_** Egindako gogoetari zer gehituko zenioke bizi dugun COVID-19aren pandemia dela-eta?

Juan Jose Ibarretxe, Joseba Azkarraga Etxagibel, Idurre Eskisabel, Maitane Arnoso Martinez, Txusa Balbas, Arcadi Oliveres, Marga Iñiguez, Jon Sarasua, Ion Errea, Aritz Otxandiano, Heike Freire, Tamara Claveria eta David Fernandez.